

GRAL

Ekonomia eta Enpresa Fakultatea
Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU)

Donostia, 2020

GIZARTE ETA INGURUMEN INFORMAZIOA IRABAZI ASMORIK GABEKO ERAKUNDEETAN: EHU-KO UDAKO IKASTAROEN FUNDAZIOAN GRI MEMORIA GARATZEKO ETA EZARTZEKO PROPOSAMENA

Egilea: Ane Gonzalez Bengoechea

Irakasleak: Igor Alvarez eta Mainer Aldaz



AURKIBIDEA

SARRERA	5
I. KAPITULUA	6
1. 1. ERANTZUKIZUN SOZIAL KORPORATIBOA (ESK)	6
1. 2. ESK EKONOMIA SOZIALEAN	7
1. 3. GIZARTE ERANTZUKIZUNAREN IRAGANA	10
1. 4. GIZARTE ERANTZUKIZUNAREN ARKETIPIOAK	12
1. 4. 1. Ikuspegi konbentzionala	13
1. 4. 2. Finantza edo akzio eredua	13
1. 4. 3. Izaera estrategikoa eta instrumentala	13
1. 4. 4. Ikuspegi integratzailea edo aurreratua	14
1. 5. ERANTZUKIZUN SOZIAL KORPORATIBOAREN PRINTZPIOAK	15
1. 5. 1. Gardentasuna	16
1. 5. 2. Materialtasuna	17
1. 5. 3. Egiaztagarritasuna	18
1. 5. 4. Ikuspegi zabala	18
1. 5. 5. Etengabeko hobekuntza	19
1. 5. 6. Erakundearen izaera soziala	19
1. 6. JASANGARRITASUNARI BURUZKO TXOSTENAK	20
1. 6. 1. LGB: Ekarpenak, Lorpenak eta Eraginak	22
1. 6. 2. GC Value Driver Model: Inbertitzaileentzako finantza <i>reporting</i> -aren gunea	22
1. 6. 3. Social Return on Investment: “outcomes”-en balorazioa	22
1. 6. 4. Negozioak Erkidegoan: CR indizea eta Aztarna Komunitarioa	23
1. 6. 5. Gizarte-sustapena: Balio ekonomikoaren ikuspegi orokorra	23
1. 6. 6. EADA: inpaktu soziala neurtzeko gaitasunen ikuspegia	23
II. KAPITULUA	24
2. 1. GLOBAL REPORTING INITIATIVE (GRI)	24
2. 2. GRI-REN HISTORIA	26
2. 3. ZUZENTARAUEN G4 BERTSIOA	27
2. 4. GRI ESTANDARRAK	29
2. 4. 1. Errendimendu ekonomikoaren adierazlea	30
	2



2. 4. 2. Ingurumen errendimenduaren adierazleak	32
2. 4. 3. Errendimendu sozialeko adierazleak	35
III. KAPITULUA	41
3. 1. ZUZENDARIAREN GUTUNA	42
3. 2. ANTOLAKETA	42
3. 3. INTERES TALDEAK	45
3. 4. JASANGARRITASUN ADIERAZLEAK (GRI)	45
3. 5. ERRENDIMENDU EKONOMIKOA	47
3. 5. 1. Emaizen eboluzioa	47
3. 5. 2. Ondare garbiaren eboluzioa	47
3. 6. ERRENDIMENDU SOZIALA	48
3. 6. 1. Jarduerak	48
3. 6. 2. Parte hartzaileak	48
3. 6. 3. Asebetetasun maila	49
3. 6. 4. Hizkuntzak	50
3. 6. 5. Zerbitzuak eta jarduerak	51
3. 6. 6. Pertsonalari buruzko informazioa	52
3. 7. INGURUMEN ERRENDIMENDUA	53
3. 7. 1. Paperaren eboluzioa	53
3. 7. 2. Materialak eta hondakinak	53
3. 7. 3. Isurketa	54
3. 8. ARRISKU, INPAKTU ETA AUKERA NAGUSIAK (AMIA analisisa)	54
3. 9. HITZARMENAK, KOLABORAZIOAK ETA BABESLEAK	54
3. 10. URTEKO KONTUAK	56
3. 10. 1. Egoera balantzea	56
3. 10. 2. Galdu irabazien orria	57
3. 10. 3. Ibilgetu ukiezina eta materiala	59
3. 11. MEMORIA LABURTUA	60
3. 11. 1. Erakundearen jarduera	60
3. 11. 2. Ondarea eta ekonomia araubidea	60
3. 12. GRI AURKIBIDEA	61
ONDORIOAK	62
BIBLIOGRAFIA	64
	3



1. ARTIKULUA	64
2. WEB ORRIAK	66
3. LEGEAK	68

TAULEN AURKIBIDEA

Taula 1: Jasangarritasunaren adierazleak (GRI)	45
Taula 2: Eraitzen eboluzioa	47
Taula 3: Ondare garbiaren eboluzioa	48
Taula 4: Ikastaro mota desberdinen kopurua	48
Taula 5: Ikastaro mota bakoitzeko ikasle kopurua	49
Taula 6: Ikastaro mota bakoitzeko hizlari kopurua	49
Taula 7: Asebetetasun maila	49
Taula 8: Hizkuntzak	50
Taula 9: Paperaren eboluzioa	53
Taula 10: AMIA analisia	54
Taula 11: 2019 urteko diru laguntzak	55
Taula 12: Egoera balantzeko aktiboa	56
Taula 13: Egoera balantzeko Pasiboa	56
Taula 14: Galdu irabazien orria	57
Taula 15: Balio gordina	59
Taula 16: Amortizazio metaketa	59
Taula 17: GRI edukiaren aurkibidea	61

IRUDIEN AURKIBIDEA

Irudia 1: Enpresa modelo desberdinak eta ESKaren koordenadak	13
Irudia 2: Materialtasunaren matrizea	18
Irudia 3: Materialtasunaren matrizea	18
Irudia 4: EHUko Uda Ikastaroak Fundazioaren lan taldearen antolaketa	44
Irudia 5: Kolaboratzaile batzuen logoak	55

GRAFIKOEN AURKIBIDEA

Grafiko 1: Asebetetasun maila	50
Grafiko 2: 2019ko hizkuntzak	51
Grafiko 3: 2018ko hizkuntzak	51
Grafiko 4: Paperaren eboluzioa	53



SARRERA

Lan honen helburua erantzukizun sozial korporatiboak enpresetan duten eragina ulertzea da. Eragin edo inpaktu hauek ulertzeko GRI jasangarritasun txostenek duten garrantzia nabarmenduz. Horretarako, eta lanarekin bukatzeko, EHUko Uda Ikastaroen fundazioak, erantzukizun sozial korporatiboari begira aurrera eramaten dituen ekintzak nabarmentzen dira, fundazioaren GRI estandarren jasangarritasun txosten bat proposatuz.

Erantzukizun sozial korporatiboa gaur egun oso presente dagoen kontzeptua da, etengabe eboluzionatzen eta berritzen ari dena. Erakunde pribatu zein publiko guztiei aplikatu daiteke. Enpresen gizarte erantzukizunak, enpresen jarduerak gizartearengan eragiten dituzten inpaktuak kontuan hartzen dituzte, hauen negozioak gidatzeko modua delarik. Beraz, kontzeptu hau, enpresek gizartean duten inpaktua neurtzeko eta honetaz kontzientziatzeko sortu zen. Inpaktu hauek neurtzeko, jasangarritasun txostenak egiten dira; hauek, erakundea garapen jasangarriaren alde dagoela ziurtatzeko baliabide bat izanik. Bere garrantziagatik, honi buruzko hainbat txosten mota daude baina ezagunenak, GRI jasangarritasun txostenak dira. Horrela, enpresa batek jasangarritasun txostenak egitea, erakundea garapen jasangarriaren alde dagoela ziurtatzeko baliabide bat da.

Gai honi buruzko gradu amaierako lana egitearen arrazoia irakasle edo tutoreengandik etorri zen. Ez nuen batere argi zeri buruzko lana egin nahi nuen, baina gaia esleitu ondoren eta EHUko Uda Ikastaroen fundazioa ondo ezagutu ondoren, aukera ezin hobea izan zela iruditu zait. Gainera, honi buruzko GRI estandarren txostena egiteko fundazioaren aldetik erraztasunak besterik ez ditut eduki, informazio eskasa izan duten arren eta horren ondorioz gai asko jorratu gabe geratu behar izan duten arren.

Lana bi zatitan dago banatuta. Alde batetik, atal teorikoa dago, bi kapitulu desberdinetan banatzen dena. Lehenengoan erantzukizun sozial korporatiboaz hitz egiten delarik eta bigarrean GRI (Global Reporting Initiative) jasangarritasun txostenei buruz. Bi gai hauetaz hitz egiten duen atal teoriko honetarako informazioa, batik bat, "Google académico" plataformatik lortutako artikulua edo dokumentuetatik hartua izan da. Hala ere, horretaz gain, ekonomiari buruzko web orrialde batzuetako artikulua eta notizia desberdinak ere erabili ditut. Bigarren kapitulurako, gainera, GRIren berezko web orrialdea erabili dut estandar bakoitza ondo azaltzeko. Bestalde, atal praktikoa dago. Bertako informazio gehiena EHUko Uda Ikastaroen fundaziotik hartua izan da eta GRI jasangarritasun txostena egiteko erreferente moduan beste erakunde batzuetako hainbat txosten begiratu ditut, hauek erdaraz zeudelarik.

Esan bezala, atal teorikoa bi kapitulutan dago banatuta. Lehenengoak erantzukizun sozial korporatiboari buruz hitz egiten du. Hasteko, atal praktikoa begira, txostena garatuko den erakundea fundazioa dela kontuan hartuz, ekonomia sozialean erantzukizun sozialak duen garrantzia edo inpaktua azaltzen da. Ondoren, honen definizio desberdinak eta urteetan zehar izan duen eboluzioa zein arketipo desberdinak



aipatzen dira. Bestalde, erantzukizun mota honen printzipio nagusienak ere azaltzen dira eta enpresa bakoitzak bere erantzukizun sozialari buruz eginiko jasangarritasun txostenen garrantzia bermatzen du, txosten mota hauetako adibide batuk emanez.

Atal teorikoaren bigarren kapituluak, Global Reporting Initiative (GRI) jasangarritasun txostenei buruz hitz egiten du. Lehenik, urteetan zehar izan dituen aldaketak azaltzen ditu, azken urteetan izan dituen bertsio aldaketak ere aipatuz. Gainera, azken bi bertsioak sakonago aztertzen ditu, lehenik G4 bertsioa eta azkenik GRI estandarren bertsio. Azken bertsio honetan, 3 errendimenduak ondo azaltzen dituelarik, errendimendu ekonomikoa, ingurumenekoa eta soziala.

Bigarren zatian, hau da, atal praktikoan, EHUko Uda Ikastaro fundazioaren GRI jasangarritasun txosten bat proposatzen da. Horretarako, atal teorikoan aipatutako datuak kontuan hartu direlarik, batez ere GRI estandarren errendimenduei buruzko informazioa.

Azkenik, zati teorikoaren arira atera diren ondorio nagusiak aipatuko dira labur-labur. Zati praktikoari begira, fundazioak erantzukizun hau nola betetzen duen eta jasangarritasunari ematen dion garrantzia aipatuko da.

I. KAPITULUA

1. 1. ERANTZUKIZUN SOZIAL KORPORATIBOA (ESK)

Gizarte korporatiboaren behatokiaren webgunean ikusi ahal den bezala erantzukizun Sozial korporatiboa “enpresak zuzentzeko modu bat da, beren jarduerak bezeroengan, langileengan, akziodunengan, tokiko komunitateengan, ingurumenean eta, oro har, gizartean sortzen dituen inpaktuen kudeaketan oinarritzen dena.”

Gizarte osoaren baliabide urriak esleitzeko, lehenengo, baliabide hauek erabili ahal izateko jabetza eskubide batzuk definitu eta esleitu behar dira. Horrela, enpresaren funtsa bere kideen arteko harremanak arautzen dituen kontratu egitura bat da, eta borondatezko akordioen eta merkatuko indarretan arreta jarri ondoren, kaltetutako alde guztien artean negoziazio justu bat dagoela suposatzen da (Rodríguez, 2007).

Aipatzekoa da zenbait autorek defendatzen zuten ondorengo ideia “Akziodunen aberastasuna maximizatze helburutik edozein urruntze, ikuspegi zabalagoren bat kontuan hartzeko teologia oker batetik dator” (Novak, 1981), izan ere, hau izan da geroago aipatuko dugun finantza edo akzio ereduaren pentsamendu ekonomikoaren ideia nagusia. Hala ere, ilustrazioaren garaitik bi liberalismoren arteko aurkakotasuna antzeman zen. Alde batetik, kontserbadorea eta indibidualista, nolabaiteko kapitalismoaren tradizioa eta jatorria errespetatzen dituen. Bestetik, justizia banatzailea, gizartearen birsorkuntzaz eta benetako berdintasunaz interesatzen dena, benetako borondatea duena eta ilustrazio Frantsesean oinarritzen dena. Bigarrenaren adibide da Stiglitz-en ideia (2004), bere iritziz, akziodunentzat aberastasuna



maximizatzeak ez dakar nahitaez eraginkortasun ekonomikoa, eta gainera, ez ditu beste helburu batzuk lortzen; hala nola, justizia soziala, ingurumenaren babesa edo giza eskubideen errespetua. Gizarte erantzukizun korporatiboa behar da informazio akastuna konpentsatzeko.

Europar Batzordearen arabera (2011) “Gizartearekiko eta ingurumenarekiko betebeharrak juridikoetatik haratago doazen enpresen ekintzak dira. Zenbait neurri arautzailek ingurune egokiagoa sortzen dute enpresek beren erantzukizun soziala beren borondatez har dezaten”. AECA (2004, 9 orr.) ere ideia horrekin bat dator “enpresak gizartearen eta ingurumenaren zaintzarekin duten borondatezko konpromisoa, elkarreraginean dauden pertsonetikiko eta gizarte taldeekiko jokabide arduratsuan oinarritzen dela” esaten duenean. Definizio hauetaz gain, hurrengo ere kontuan hartzekoa da, besteak baino berriagoa dela kontuan izanik “Erantzukizun sozial korporatiboa enpresen negozioak gidatzeko forma da, bere jardura guztiek beren bezeroengan, akziodunengan, ingurumenarengan eta gizartearengan duten inpaktua kontuan hartzeagatik berezia” (Observatorio del Inversor, 2013).

Definizio hauek kontuan hartuta, bi ideia nagusi har daitezke kontuan erantzukizun sozial korporatiboaren inguruan. Lehenengoa, bezeroak, akziodunak, langileak, ingurumena eta gizartearen kontuan hartzen dituela, eta bigarrena, borondatezkoa dela.

1. 2. ESK EKONOMIA SOZIALEAN

Hau guztiaren arira, garrantzitsua da ekonomia sozialeko irabazi asmorik gabeko erakundeek hitz egitea, geroago aztertuko dugun EHUko uda eskolen fundazioa irabazi asmorik gabeko erakundea dela kontuan hartuta. Erantzukizun gabeko erakundeak askatasunez elkartu nahi dutenen ekimen eta borondatez sortzen dira, kasu honetan hirugarrenen alde gizartearen onurarako jarduerak garatzeko eta zerbitzuak emateko, beti ere, helburu solidario edo humanitarioekin. Erakunde hauek osatzen dituztenek, beren helburu sozialarekin lotutako jarduerak garatzean lortzen dituzten etekinak ezin dituzte beraien artean banatu, beraz irabazi asmorik gabekotzat hartzen dira etekin horiek banatu beharrean, erakundearen onurarako erabiltzen dituztenak, ondarea handitu eta iraunkortasuna bermatzeko. Erakunde hauen ekintza eremuak batik batik hezkuntza, osasuna, ingurumena, gizarte ongizatea eta giza eskubideak dira. Irabazi asmorik gabeko erakundearen barnean sartzen dira fundazioak, elkarteak, korporazioak, lan sozietateak eta sektore solidarioko erakundeak (Rincón, 2013).

Horregatik, irabazi asmorik gabeko erakundeak gizarte ekonomiaren barnean sartzen dira. Gizarte ekonomia hau “eremu pribatuan, bere kideen interes kolektiboa edo interes ekonomiko zein soziala helburu dituzten erakundeek aurrera eramaten dituzten ekonomia eta enpresa jardueren multzoa da” (Ayuda en acción, 2018). Gizarte ekonomiaren barnean dauden entitateak gizartearen beharrak asetzeko eta hauen bizi maila hobetzeko eginkizuna dute eta horretarako hainbat gauza egiten dituzte, horien artean lanpostuak sortzea, errenta maila hobetzea, giza harremanak hobetzea eta kultura sustatzea egonik. Hau dela eta, gizarte erantzukizuna gizarte ekonomikoko



entitateetan enpresa kapitalistetan baino eraginkorragoa dela esaten da, elkarri laguntzeko balioetan oinarritzen baitira lehengo hauek, erantzukizun sozial korporatiboan hain zuzen ere.

Enpresek hartzen dituzten balioen konpromisoek, jendeak zein bertako langileek ingurumeneko kontzeptuei ematen dieten garrantzia erakusten dute, horrela gizarte erantzukizunari buruz duten ezagutza balioztatzen delarik. Honengatik, komenigarria da gizarte ekonomiaren barnean dauden erakundeek erantzukizun sozialerako hartu dituzten erabakien eragina aztertzea.

Nieto-k (2009) egindako ikerketa batean hurrengo ondoriora iritsi zen “Gizarte ekonomiaren barnean dauden entitateek duten erantzukizun soziala, gizartearekin duten harremanekin lotuta dago batik bat”. Erantzukizun sozialeko gainerako aldagai edo balioak ez dira zuzenki erlazionatzen; hala nola, antzinasuna, tamaina eta sektore ekonomikoa, eta horregatik ezin da esan hauek gizarte ekonomiaren konpromiso sozialeko mailan eragina dutenik. Sajardok (2017) egindako ikerketa batean ere hurrengo ondoriora iritsi zen “Gizarte ekonomiako enpresen izaerak eta jarduteko printzipioak, erantzukizuneko enpresen ekonomia egiteko modu berriaren adierazgarri bezala ikusten dira, bere ekintzek emaitza ekonomikoak, finantzarioak, sozialak eta ingurumenekoak zaintzen dituelarik”. Gainera, lehen aipatutakoa ere ondorioztatzen du, gizarte ekonomian sortzen diren loturak eta baloreak beste edozein enpresa motetan sortzen direnak baino handiagoak direla, horrela erantzukizun soziala aurrera eramateko ahalmen handiagoa izanik.

Martinez eta de Diegok (2008) egindako ikerketa baten arabera, alde batetik, enpresen jokabide etiko baten eskaerak, aipatutako erantzukizun soziala zabaldu du. Bestetik, mugimendu sozialek izugarritzko hazkundera izan dute, horrela erantzukizun sozialaren garapenean geroz eta garrantzi gehiago izanik. Erantzukizun sozialeko joera honek, mugimendu sozialeko ekonomiaren eta enpresaren arteko erlazioak aldatzea ekarri du. Enpresak, merkatuetan lan egiten ez dutenekin negoziatzea ekartzen du, legitimitatea lortzeko, horretarako erakunde garrantzitsuenak Gobernu Kanpoko Erakundeak (GKE) izanik.

Gaur egun, eremu pribatuan, GKE eta enpresen arteko harremana kooperazioa da, iraganean gatazkatsua bazen ere. Eremu publikoan ordea, enpresen eta GKEen arteko harremana gerturatzearen eta urruntzearen dinamika bikoitzagatik bereizten da. Gerturatzea bata bestearen interes talde bihurtzean gertatzen da baina gerturatze honek kooperazioa edo gatazka ekar dezake. Bestalde, urruntzea bietako batek bestea interes talde kontsideratzen ez duenean eta bertatik bota nahi duenean ematen da.

Gerturatzea **indar zentripetuen** bidez ematen da, gehienetan kolaborazioen forma hartuz. Indar hauek politikoak, ekonomikoak, sozialak eta teknologikoak izan daitezkeelarik. Politikoak estatuak erakundeen aurrean indarra galtzen duenean ematen dira, hutsune hori GKEek betetzen dutelarik; ekonomikoak globalizazioarekin du zerikusia eta sozial eta teknologikoak bi alderdiak garapen jasangarriaren printzipioekin



koherenteagoa den jarduera baten eskaera sozial handienera gerturatzeko dituzte. Azken indar hau GKEek negatiboki ebaluatzen dute enpresa irabaziak lortzeaz soilik arduratzen den erakunde ekonomikotzat ikusten badute, irabaziak gizartearen onurarako erabili beharrean beraiantzako bakarrik erabiltzen dituztenean; eta positiboki emaitza ekonomikoak kontuan hartu gabe borondatez emaitza sozialak hobetzen saiatzen direnak. Bestalde, urruntzea **indar zentrifugo**en bidez ematen da, hauek batik bat enpresak GKEen rol politikoak ukatzean ematen direlarik. Hauek, GKEak errealitate sozialak aldatzeko helburu politikoak dituzten bi rol nagusiz desberdintzen dira, GKE asistentzialak, arazoaren irtenbide bezala hautematen direnak eta GKE politikoak, sistema osoa aldatzeko lana eginez eraldaketa sozialak gauzatzen dituztenak (Martinez eta de Diego, 2008).

Esan bezala, eremu publikoko enpresen eta GKEen arteko erlazioak urruntzeak eta gatazkak ekar ditzake eta portaera hau batik bat beldurratetik ematen da. Enpresen aldetik, legezko auditoretza sozialaren erregulazio eta ezarpenaren beldurrak, eremu publikotik urruntzea edo gatazkak ekartzen ditu. Bestalde, GKEaren aldetik, erakunde bateko lanpostu hutsak bertako kideen bidez betetzeko beldurrak eremu publikoko gatazkara darama. Hala ere, gatazka hauek kooperazioarekin ere agertzen dira, nahitaez lotuta egon behar duten bi dinamika gisa, bata bestea indartzen baitu (Martinez eta de Diego, 2008).

Bi alde hauek erantzukizun soziala ulertzeko duten modu desberdinek erregulazioa egitea eskatzen du; horrela GKEak erantzukizun sozialaren definizioa bere legegintzan sartzen saiatzen dira, aldaketak ziurtatzeko. Honen ondorioz sortzen den gatazkak tentsioa sortzen du enpresan, mugimendu sozialak bultzatzen dituen baloreak aldatzeko beldurra dela eta.

Baina beldur hori kooperazio pribatuarentzat pizgarri da, erregulazioa leuntzeko enpresak eremu pribatuan GKEekin kolaborazio eskemak egiten saiatzen baitira eta horrela, enpresek GKEei ekimen pribatuetan parte hartzea proposatzen die. Bestalde, enpresek zalantzan jartzen dute GKEak sortzearen zilegitasuna, horrela politika publikoak egiten parte hartu ez dezaten. Hala ere, honek helburu politikoa duten GKEak bakarrik kaltetzen ditu, hau da, enpresen aurkako botere bihurtu nahi dutenak.

Horrela, eremu pribatuan lehiarako erabiltzen diren estrategiek enpresen beldurrak handitzen dituzte eta horrek lankidetzarako edo kolaboraziorako jarrera bultzatzen du. Bestalde, gatazka baten aurrean, garrantzitsua da gatazkaren indarra neurtzea, enpresak GKEetatik urruntzen saiatuko baitira, beraien arteko negoziazio edo kontaktua galduz. Hala ere, kontaktu hau galtzea enpresaren osperako txarra ez denean bakarrik onartuko dute.

Enpresa eta GKEak eztabaidak izaten dituzte eremu publikoan, GKEek enpresek onartu nahi ez dituzten konpromezuak bilatu nahi dituztelako, eta enpresak, hauek betetzeko egin beharko lituzkeen ahaleginak egiten ez dituelako. Beraz, azken finean, bi hauek



urruntzearen zergati nagusiena enpresek GKEen rol politikoa ukatzea da. GKE asistentzialak orde, onetsiak dira eta harremana ezartzen dute beraien artean.

1. 3. GIZARTE ERANTZUKIZUNAREN IRAGANA

Antzinatean, gizarteak aurre egin dio baliabide naturalen, giza baliabideen eta gizarte baliabideen babesari, herritarren beharrak asebetetzeko eta horregatik ongi ikusiak izan dira betidanik karitatez eginiko ekintzak. Hori dela eta, lehenengo industria iraultzan langileen miseriari emandako erantzun orokorra enpresaburuek egindako paternalismo materiala, politikoa eta morala izan zen. Paternalismoak, erantzukizun sozial korporatiboa ulertzeko modu inplizitua eratu zuen; hau da, beste zerbaiten baitan zegoela erakutsi zuen. Horregatik lehenengo atalean aipatutako ilustrazioaren garaitik sortutako bi liberalismo desberdinen artean bigarrenen kokatuko genuke, justizia banatzailean. Hala ere, paternalismoak berarekin zekarzkien sentimendu onak, konpainien ospea eta irudia hobetzeko helburuarekin nahasten ziren (Rodríguez, 2007).

Urte horietan, Von Jhering eta Von Gierke legegileek sozietate zuzenbideak konpainiei emandako legezko nortasunaren izaeraren inguruan eztabaidatu zuten. Lehenengoak elkarte pribatutzat jotzen zituen, akziodunen onurarako soilik; hau da, ikuspegi klasikotik aldentzeari uko egiten zion, konpainien administratzaileak akziodunengandik bakarrik izan behar zuten nolabaiteko konfiantza. Bigarrenak orde, helburu orokor propio eta desberdina zuela uste zuen, haien interesetatik bestelakoa; hau da, *stakeholder* guztiakin nolabaiteko konfiantza behar dutela ulertzen zuen. Horrela, bi enpresa eredu oso desberdin sortu ziren. Alde batetik, akziodun balioa eta bestetik lehen aipatutako paternalismoaren balioa (Rodríguez, 2007).

XX. mendearen lehen erdialdean, bigarren mundu gerraren ondoren, 1929ko krisialdiaren eta depresio handiaren ondorioz jendearen konfiantza eta ospea galdu zuten enpresek. Konfiantza eta ospe hau berreskuratzeko aukera ikusi zuten gobernuarekin lankidetzan aritzean eta aipatutako bi gatazkak iraun zuten urteetan egindako ekintzek sozietatean eragin zuten inpaktu emozional positiboa aprobetxatuz (Rodríguez, 2007).

Bowenek (1953) enpresarien erantzukizun sozialak ondorengo eran definitzen ditu "Gizartearen helburu eta balioen ikuspegitik, politikak aplikatzeko, erabakiak hartzeko eta ekintza ildo desiragarriak jarraitzeko betebeharrak". Garrantzia ematen dio ekintza onak erantzukizun indibidualaren ondorioz egiteari eta horregatik aurreko atalean aipatutako ilustrazioaren garaitik sortutako bi liberalismoen artean lehenengoan kokatuko genuke ideia hau; kontserbadore eta indibidualista den akziodun balioan. Hemen, kezka ikusten da botereak zuzendarien eskuetan duen kontzentrazioa, hortik sortzen baita enpresa agintari askoren paternalismoaren aurkako oposizioa, ez dutelako nahi interes taldeek enpresaren erabakietan parte hartzea. Hortik aurrera, Boweren ustez merkatu ekonomiaren ezaugarri den enpresa askatasuna ongizate globalari mesede egiten badio soilik justifikatu ahal da, interes pribatuaren eta publikoaren



arteko arrazoizko oreka lortzen badu. Horrela, paternalismoaren ikuspegiak kokatzen da, interes talde guztien alde kokatzen baita.

Baina Boweren paternalismoaren aurkako oposizioaren eta zuzendarien jardueraren eraginkorraren artean kontraesanak sortzen dira. Izan ere, lehenengoak, lehenago esan bezala, enpresako zuzendariak beren burua erkidego osoaren interesen administratzaile fiduziario gisa ikus dezatela esaten du. Praktikan ordea, zuzendariak garrantzia gehiago ematen diote gizabanakoen arteko harremanei. Ondorioz, erantzukizun sozial korporatiboa sustatzen dute publikoaren iritziz legitimitatea lortzeko.

50. hamarkadaren amaieran Kaysen-ek (1957) “sentimendudun korporazioa” hitza zabaldu zuen gerentzia inbertsioaren errendimendua maximizatu nahi zuten jabe batzuenak bakarrik ez zen enpresa handiak aipatzeko; hau da, gerentzia akziodunen, langileen, bezeroen edo beste interes taldeen (*stakeholderren*) erantzule zen enpresei egiten zien erreferentzia, paternalismoaren ideologia jarraitzen zuen. Bestalde, Eells-ek (1960, 180 orr.) “enpresaren gobernu” espresioa sartu zuen konpainia epe luzeko errentagarritasunerantz zihoan eta gizartearekiko konpromisoak guztiz aintzat hartzen zituen kontestuetan. Baita hainbat taldek beren ekarpenekin enpresen martxa onari laguntzen ziotela aitortzen zuten kontestuetan ere. Azken espresio honek, negozio munduan profesionalak direnak kontuan hartzeko ideia zabaltzen du, hauen ardura edo erantzukizunak besteenak baino garrantzitsuagoak izan behar dutela argumentatuz, profesionalak edo adituak izategatik.

80. hamarkadatik aurrera, murrizketen ondorioz gizarte erantzukizun korporatiboaren iritzi publikoaren kezkarik handiena gauzatu zen. Garai horretan propietate pribatuaren eta merkatuaren funtzionamendu librearen errespetu falta antzematen baitzen. Beraz, urte luzez, akziodunek zuzendariari emandako kapitalaren epe luzeko errendimendua maximizatzeko helburuan oinarritzea proposatzen zuen enpresa eredua nagusitu zen; hau da, akziodun eredua.

Hala ere, 80. eta 90. hamarkadetan aurrera egin ahala, akziodun eredu horren aurkako erantzuna egon zen eta enpresariaren eta beren jarduerari buruzko eztabaida berriro piztu zen. Alde batetik, 1987 urtean “garapen iraunkor” terminoa azaldu zen, egungo beharrak asetzen dituen garapena, etorkizuneko belaunaldiak beren beharrei erantzuteko duten gaitasuna arriskuan jarri gabe. Horrela, jasangarritasunarekiko kezka zabaldu zen. Beste aldetik, akzio eredua berriro ere ezartzeko ahalegin berriek ikuspegi ekonomikoaren kritika gogorak sortu zituen, eta eredu horren alde zeudenek ere aitortu zituzten eredu horren ondorio sozioekonomiko negatibo garrantzitsuak.

Aipatutakoaren adibide izan zen Kennedy-ren (2000, 4-10 kap.) adierazpena, akziodun ez diren partaideen interesak zapalduak izan zirela esan zuenean. Izan ere, zuzendari batzuek beraiengan bakarrik pentsatzen zuten eta beraiantzat bakarrik dirutza handiak lortu zituzten akziodunen aberastasuna maximizatzeko pizgarriei esker, honek langileen banaketa, motibazio galtzea, iritzi publikoaren desconfiantza... ekarri zituelarik. Egoera honen aurrean gizarteak erreakzionatu egin zuen eta ondorioz, enpresek ahaleginak



egin behar izan zituzten beren irudia hobetu eta gizartearen konfiantza handitzeko. Horrela, enpresek beren akzio onak erakusteko frogak aurkeztu zituzten, legitimitate soziala ziurtatuz.

Legitimitatea “erakundearen ekintza desiragarriak, komenigarriak edo egokiak; arau, balio edo sinesmen sozialez eraikitako sistemarekin erlazionatuta daudelaren iritzi partekatua da” (Suchman, 1995). Bere helburua, lehenago aipatu bezala, portaeren justifikazioa lortzea da, iritzi publikoaren konfiantza eta sinesgarritasuna lortzeko. Baina ospea irabazi eta gero, errealitatea itxuratik desberdina izan daiteke. Hala, gizarte erantzukizun korporatiboak ospea sortzeko joera du.

XIX. mendean ordea, gauzak aldatu egin ziren; *stakeholder*-ekin gutxienez elkarrizketa bat mantentzen zen. Enpresak gizarte erantzukizun korporatiboaz baliatu ziren beren lehiakortasuna hobetzeko eta akziodunentzat balioa sortzeko. Horrela, Perrow-ek (1997) erantzukizun sozial korporatiboa enpresa birkokatzeko tresna bat dela ulertzen zuen, ingurunea hobeto ustiatzeko. Honekin, beste bi alderdi zabaldu ziren enpresa paternalismo eta akziodunez aparte; alde batetik *stakeholderrekin* elkarrizketak zituztenak eta bestetik hauekin elkarrizketa edo hizketaldirik ez zituztenak.

Stakeholderrak interes taldeak dira eta Peiro-k, (2020) economipedia webgunean argitaratutakoaren arabera, “enpresa baten barnean dauden eta helburu propioak dituzten pertsona taldeak dira, hauen ondorioak enpresarekin lotuta daudelarik”. Barne *stakeholderren* adibide dira langileak, gerenteak, akzionistak eta jabeak; kanpo *stakeholderren* barnean aldiz, bezeroak, sozietatea, gobernu eta hornitzaileak sartzen dira.

1. 4. GIZARTE ERANTZUKIZUNAREN ARKETIPOAK


Aurreko atalean aipatutako 2 ardatz desberdinen arabera; alde batetik modelo paternalista eta akzioduna eta bestetik *stakeholderrekin* elkarrizketa izatea eta ez izatea daude. Honen harira, gizarte erantzukizunaren 4 arketipo desberdin daude ikuspegi ekonomikoan (Rodríguez, 2007).

Akziodun balioa enpresaren zuzendaritza eta kudeaketarako modelo bat da eta lehenetasuna ematen die konpainiaren legezko jabeen interesei, akziodunen eta zuzendarien arteko harremanei soilik; hau da, ez da beste *stakeholderretaz* arduratzen. Modelo paternalista ordea, beste *stakeholderren* lehenetasun eta eskaeretara irekita dago. Bestalde, aipatu bezala, alderdi interesdun garrantzitsuek, ez akziodunek bakarrik, erabakietan parte hartze gehiago edo gutxiago izateko aukera dago, horrela *stakeholderren* elkarrizketa edo parte hartzea kontuan hartzen delarik.



Lehenengo irudi honek aipatutako bi ardatz nagusiak biltzen ditu, gaiari buruzko garaiko erreferentzia bibliografiko batzuekin. Aurreko atalaren amaieran esan bezala, XIX. mendean *stakeholderrek* elkarrizketak izateak garrantzia hartu zuen eta hori nabaria da lau arketipo hauetan. Bi zaharretan *stakeholderrek* parte hartze gutxi edo nulua dute beste bi berrietan parte hartze nabaria dutelarik, hauekin elkarrizketak edukiz. Lau arketipo edo modelo horien artean, lehenengo bi zaharrenak labur-labur aipatuko dira eta ondoren bi berrienak sakonago azalduko dira, hauek gaur egun garrantzi handiagoa dutelako eta enpresa gehienek erabiltzen dituztenak baitira.

Irudia 1: Enpresa modelo desberdinak eta ESKaren koordinadak



Iturria: Rodríguez, J.M. (2007)

1. 4. 1. Ikuspegi konbentzionala

Paternalismo klasikoa oinarrituta dago. Akziodunak ez diren *stakeholderrek* nolabaiteko kezka bermatzen dute enpresarentzat eta horregatik hainbat ekintza borondatez egiten dira. Hala ere, ez dute parte hartzen enpresaren erabaketan. “Erantzukizun sozial korporatiboaren praktika onak beren jardura osagarrietan aldarrikatzen dituzte (fundazioak); eta bitartean beren merkatuko jardura nagusiari zuzenean lotutako erantzukizun sozial korporatiboko jardura onak nabarmetzen dira, merkatuan ondo ikusteko” (Ecoemprende, 2020)

1. 4. 2. Finantza edo akzio eredua

Oso presente egon zen 70. eta 80. Hamarkadetan. Etekinen gehikuntzarekin eta legezko jabeentzat balio ekonomikoa sortuz, enpresaren erantzukizun soziala identifikatzean oinarritzen da. Akziodunak soilik hartzen ditu kontuan; hau da, ez da beste *stakeholderretaz* arduratzen. Dagoeneko ez du horrenbesteko eraginik praktikan, ondoren aipatuko dugun ikuspegi bideratzeko joera baitago.

1. 4. 3. Izaera estrategikoa eta instrumentala

Lehenago aipatutako finantza edo akziodun enpresa eredu batetik dator. Akziodunen interesek lehentasuna izateaz gain, enpresaren gobernuaren eta negozioen



orientazioaren kontrola ere badute. Gainerako *stakeholderrak* akziodunari epe luzera balio handiagoa emateko bitartekoak eta tresnak soilik dira. Bestalde, erantzukizun sozial korporatiboaren erakunde gehienek (GKEak adibidez) beste ikuspegi aurreratu bat onartzen dute, bertan interes taldeak aintzat hartzea merezi dutela esaten da, berez ordezkatzan dutenagatik eta ez beste interes talde baten bitarteko erabilgarria izateagatik soilik.

Esan bezala, akziodunentzako epe luzerako balio ekonomikoa sortzeari ematen dio lehentasuna, baina kontuan hartzen ditu beste talde interesdunen eskariak asetzeko behar praktikoak ezarritako murrizketak, horregatik beraiekin elkarriketak izaten dituzte eta konpainiaren erabakietan parte hartzen dute. Enpresa eta gizarte harremanak bi aldeentzat onuragarriak izatea komeni dela iradokitzen da, baita interes taldeekin elkarriketa artikulatzea ere, haien iritziak eta eskaerak ezagutzeko.

Sarritan erresistentzia batzuk antzematen dira barneko *stakeholderrekiko* hartu beharko liratekeen konpromisoen aurrean, eta gogo handiagoa jartzen da kanporanzko ospea eta, azken batean, legitimazio soziala lortzean (Deakin eta Hobbs, 2006). Ondorioz, alor batzuk hitzartzen dira: Errentagarria izatea, negozioen etikaren printzipioak errespetatzea, baita autonomi, duintasun eta giza eskubideak ere; eta “ona izatea”. Beraz, lehentasun hierarkia bat jarraitzen da, non, batez ere, gizarte erantzukizun hori errentagarritasun kontua den; hala, xehetasunetan sartuz, honako hauek kontuan hartu eta bultzatzen ditu:

- Produktu berrien sorkuntza.
- Konfiantzaren, irudi komertzial onaren eta ospearen bidez, ukiezinak sortzea eta metatzea. Hau da, funtzionatzeko eta hazteko “lizentzia” bat lortu eta mantentzea.
- Ustiapen kostuak murriztea.
- Inbertitzaileak eta finantza baliabideak erakartzea.
- Langile onak erakartzea eta atxikitzea.
- Jarduera ekonomikoen erregulazio publiko txikiagoa eta enpresen autorregulazio handiagoa.
- Proiektuen finantzaketarako sarbidea erraztea.

Hala ere, ez ditu akzio ikuspegi purutik erabat desberdin diren hainbeste ezaugarri; ikuspegi horretatik oso bestelako dela pentsatzeko. Ikuspegi puruan, enpresak ongizate kolektiboari egiten dioten ekarpenik onena posibleak handitzea da eta ikuspegi ilustratuak berdina sinesten du, baina epe luzerako ikuspegi ekonomiko batekin lan egiten duten enpresa arduradun batzuei esker lortuko da.

1. 4. 4. Ikuspegi integratzailea edo aurreratu

Eredu paternalistatik eratorria da baina ikuspegi honetan *stakeholder* bakoitzak irudikatzen duena aintzat hartzea merezi du, ez bakarrik beste talderen bati bitarteko erabilgarria izateko duen gaitasunagatik. Hau da, *stakeholder* bakoitzaren interesak



zilegiak dira eta berezko balioa dute. Hala ere, bi eragileen arteko kontratu askatasunak bidezko akordioetara eramango duela ez da ziurra, posible da alderdietako batek bidegabeki jokatzea besteren kalterako. Kontestu honetan egokiena kontratuaren bi alderdiak beren benetako apustuak ezagutu gabe ados egotea izango litzateke. Enpresa baten kasuan horrela izateko, *stakeholderrek* beraiei eragiten dieten erabakietan parte hartu beharko lukete. Partaide bakoitzak helburu bezala tratatua izatea merezi du, ez helburu bat lortzeko bitarteko soil gisa. Horretarako, apustua egin duten konpainiaren zuzendaritzan parte hartu behar dute.

Laburbilduz, enpresaren partaideak solaskidetzat hartu behar dira eta beraien interesak kontuan hartu behar dira erabakiak hartzerakoan. Gainera, interes horiek bi alderdien arteko elkarrizketa baten bidez identifikatu behar dira (Fernández, 2008).

Printzipio orokor garrantzitsuenetako batzuk hurrengoak dira (Rodríguez, 2007):

- Erantzukizun sozial korporatiboa erakundean sartzea.
- Alderdi interesdunen identifikazio objektiboa.
- Administrazioileen eta goi exekutiboen funtsezko erantzukizuna.
- Zuzendarien betebeharrak fiduziariorako.
- Partaidetzako antolaketa, zuzendaritza eta kudeaketa.
- Bidezko negoziazioa.
- Banaketan oreka.
- Kanpotasunak barneratzea.

Beraz, gakoa, akziodunak ez diren *stakeholderrekin* konpromiso eraginkorrerako neurriren bat hartzea da. Halaber, kontuan hartu da *stakeholder* horiek zenbateraino babesten dituzten beren interesak kontratuen, arau publikoen edo enpresatik kanpoko estaldura mekanismoen bidez.

1. 5. ERANTZUKIZUN SOZIAL KORPORATIBOAREN PRINTZIBIOAK

Lehenago aipatu bezala, “Erantzukizun Sozial Korporatiboa, enpresak gizartearen garapenarekin eta ingurumena zaintzearekin duten borondatezko konpromisoa da, beren osaera sozialetik eta elkarreraginean diharduten pertsona eta gizarte taldeekiko jokabide arduratsutik abiatuta” (AECA, 2004). Bere helburu nagusia enpresetan berrikuntza eta inpaktua hobetzera bideratuta dauden zuzendaritza eta kudeaketa elementuak sartzea da, enpresak sozialki arduratsuak diren kanpo eraginak sor ditzaten. Finantza informazioak gabezia handiak erakutsi ditu erakundeen kudeaketa sozialki arduratsua irudikatzeko; horregatik, bere printzipioek ikuspegi berriak behar dituzte, Gizarte Erantzukizunaren oinarritzko printzipioetara hurbiltzen direnak.

Lehen aipatutako Gizarte Erantzukizunaren helburua oinarri hartuta, printzipio desberdin asko daude baina lan honetan AECA (2004)k definitutako gizarte erantzukizunaren oinarritzko printzipioak aipatuko dira: Gardentasuna, materialtasuna,



egiagtagarritasuna, ikuspegi zabala, etengabeko hobekuntza eta erakundearen izaera soziala.

1. 5. 1. Gardentasuna

Oinarrizko pieza da Gizarte Erantzukizunean, gainerakoen euskarri baita. “Erakundearen gizarte itxaropenerako iragazkorra den eta bere portaera sozialari buruz ematen duen informazioa eskuratzean oinarritzen da” (AECA, 2004). Bestalde, Lozano-k (2008, 447 orr.) hurrengo esaten du printzipio honi buruz: “Gardentasuna enpresen gizarte erantzukizunari buruzko eztabaidaren funtsezko osagaia da, enpresen praktikak eta portaera hobetzen laguntzen duelako eta aldi berean, lortutako emaitzak kuantifikatzeko aukera ematen dielako enpresei eta hirugarrenei”

Beraz, printzipio hau, sozialki arduratsuak diren jokabideak garatzeko ideiei buruzkoa da eta ideia hauek hurrengo atalean aipatuko ditugun jasagarritasun txostenak egiteko jokabide egokietan kokatzen dira. Halaber, enpresek beren erantzukizun sozialeko jokabideak ezagutaraztea, informatzea eta argitaraztea ekartzen du. Horrela, gardentasunaren bidez enpresek gizarteari erakusten diote nola jokaten duten, kritikei edo balio iritziei bide emanez. Horregatik, oso garrantzitsua da komunikazioa printzipio honetan eta horretarako enpresen komunikazio sistemak indartu beharko lirateke bai barrura begira bai kanpora begira.

Aipatutakoaren arira, gardentasun printzipioa 3 elementutan oinarritzen da: sozialki arduratsua den jokabidea, antolaketan interesa duten eragileak eta jardueren komunikazioa (Abadía, 2005). Jarraian 3 elementu hauek laburki azalduko ditugu printzipio hau hobeto ulertzeko.

Lehenengoa, **Sozialki arduratsua den jokabidea**, erakundearen jardueren iraunkortasunaren bidez neurtzen da. Definizio erabiliena Brundtland Batzordetik 1987an sortutakoa da: “Orainaren beharrak asetzen dituen garapena, etorkizuneko belaunaldien gaitasunak arriskuan jarri gabe”. Elementu honen garrantzia helburu orokorraz gain, ingurumenaren babesa eta gizarte ongizatea erakundearen helburu bezala gehitzen dituela da. Hala ere, aipatzekoa da jokabide hau, zoritxarrez, eragin negatiboa izan duten gertakarien ondorioz sortzen dela; kontsumitzaileen eta inbertitzaileen presioak bultzatu duelako justizia sozialarekin bat datozen jarduerak egitea.

Bigarrenak, **antolaketan interesa duten eragileak**, *stakeholderak* edo interes taldeak dira. Interes talde hauek, gizabanakoek edo era batera edo bestera erakundearen existentziaren edo ekintzaren eraginpean dauden beste eragileek osatzen dute. Lehen aipatu den bezala, barruko (akzionistak, langileak) eta kanpoko (bezeroak, hornitzaileak...) *stakeholderrak* bereizten dira. Horretaz gain, lehen ere aipatu izan den bezala, gaur egun erantzukizun sozial korporatiboan *stakeholderrek* eginkizun aktiboa dute, enpresen erabakiak hartzeko prozesuetan beraien beharrak eta iritzia kontuan hartzen baitira.



Hirugarren elementua erakundearen **jardueren komunikazioa** da. Garrantzitsua da jarduera sozial arduratsuak egiten direnean beraiei buruzko informazioa gizarteari komunikatzea. Izan ere, egindako jarduerak ez badira ondo azaltzen, ez dute ezertarako balio, gizarteak ez baitu sinesten. Informazio finantzarioa mekanismo tradizionala izan arren, honek eragile ekonomikoak bakarrik hartzen ditu kontuan eta hainbat elementu geratzen dira iraunkortasunarekin erlacionatutako kudeaketa sozialki arduratsutik kanpo. Horregatik, kontuan hartu behar dira enpresek ingurumenarekin duten kudeaketa proaktiboa eta gizartean duen eraginari buruzko informazioa, beste hainbat gauzen artean.

1. 5. 2. Materialtasuna

Materialtasun printzipioaren arabera “erakundeak kontuan hartu behar ditu erabakiak hartzeko interesa duten alderdien beharrak eta itxaropenak, erantzukizun sozialaren dimentsio, jarduera eta inpaktu guztiei aurre eginez” (Abadía, 2005, 45.orr). Gainera, Medium webguneak materialtasuna erantzukizun sozial korporatiboan “Erakunde baten iraunkortasunerako bereziki garrantzitsuak diren gaiak adierazteko” erabiltzen dela esaten du.

Enpresak funtsezko oinarri bat izan behar dute iraunkortasun estrategientzat eta ondorioz, negozioa kudeatzeko faktore tradizioaletatik haratago joan behar dute bere alde interesdunentzat garrantzitsuak diren faktoreetan. Horregatik, materialtasunarekin lotuta dauden gaiak derrigorrezkoak izan beharko lukete epe luzeko iraunkortasuna bilatzen ari diren enpresentzat.


Aipatzekoa da azken urteetan printzipio honen garrantzia handitu dela, batik bat hurrengo kapituluan aipatuko dugun GRI jasangarritasun txostenean ematen zaion garrantzi handiagatik. GRIk esaten duenaren arabera materialtasuna, alderdi desberdinek behar adineko garrantzia hartu eta horren berri emateko euskarria da. Gainera, txosten hauek ekonomia, ingurumen eta gizarte inpaktu esanguratsuak islatzeaz gain, beren *stakeholderren* ebaluazio eta erabakien influentzia ere barne hartu behar dituzte. Beraien helburua ekintza estrategia zehazteko oinarria ezartzea da.

Aipatu bezala, printzipio honetan erakundearen interesa duten alderdi guztien beharrak eta itxaropenak kontuan hartu behar dira. Horregatik, materialtasun matrize bat sortzen da, bai kanpoko eta bai barneko faktoreak elkartzeko. Matrize honetan *stakeholderrentzat* eta enpresarentzat garrantzitsuak diren alderdiak adierazten dira, bakoitzarentzat duten garrantziaren arabera. Horrela, bientzat garrantzitsuak diren alderdiei buruz jardun edo informatu behar da (Vives, 2020). Hala ere, matrize honek interes talde edo *stakeholder* guztiak nahasten ditu, hau da, ez ditu taldez desberdintzen bakoitzaren eskaera edo garrantziak eta horregatik interes talde bakoitzera zabaltzera proposatu da, interes talde bakoitza independentea baita.



Ondoren ikusten diren 2. eta 3. irudietan matrize honen bi adibide ikus daitezke printzipio hau hobeto ulertzeko:

Irudia 2: Materialtasunaren matrizea



Iturria: Vives, A. 2013

Irudia 3: Materialtasunaren matrizea



Iturria: Vives, A. 2015

1. 5. 3. Egiagarratasuna

Erakundearen erantzukizun sozialeko jarduerak kanpo egiaztapena behar dute; izan ere, gardentasun eta egiagarratasunaren bitartez gizartearen sinesgarritasuna lortzen da. Egiagarratasuna lortzeko enpresarekin zerikusirik ez duten aditu independenteek enpresaren jardura egiaztatzen dute eta aditu hauen azken txostenek enpresaren jardueren egiagarratasunari buruzko seinaleak emango ditu. Printzipio hau lortzeko orain aipatuko diren paetak jarraitu behar dira, beste batzuen artean (Moneva eta Paez, 2020):

- Erantzukizun sozial korporatiboko txostenen kanpo egiaztapena egin behar da, txosten horien edukiaren sinesgarritasuna handitzeko eta deskribatutako portaera sozialki arduratsuaren sinesgarritasuna handitzeko.
- Egiaztapenak eta txostenak egitea borondatezkoa izan behar da, baina gizarte erantzukizuna duten enpresek, printzipio honen kanpo egiaztapena beren portaera sozialki arduratsuaren funtsezko faktoretzat hartu behar dute.
- Kanpo egiaztapenaren zerbitzu onartuena aseguramendua da (assurance). Honen helburua txostenean ematen diren datuei buruzko ahalik eta fidagarritasun mailarik handiena ematea da. Baina aipatu bezala, lan hau ere aditu independenteek egin behar dute eta ondorioz ezin da erabateko fidagarritasuna eman, datu batzuk subjektiboak direlako.

1. 5. 4. Ikuspegi zabala

Erakundeak gizarte erantzukizun korporatiboaren helburuak ahalik eta jasagarritasun handieneko testuinguruan jarri behar ditu; hau da, ahalik eta gai gehienak ukitu beharko lituzke eta horretarako enpresa kokatuta dagoen tokian eragiten duen inpaktua kontuan



hartzeaz gain, mundu mailan eragiten duen inpaktua ere kontuan hartu behar du, beti ere etorkizunean pentsatzen. Ikuspegi zabala karitateko ekintzetatik haratago doa, giza eskubideen, lan eskubideen, ingurumenaren babesaren eta korrupzioaren aurkako borroka bezalako gaiak jorratzen ditu, beste askoren artean.

Esan bezala, ikuspegi zabal honek balio etikoekiko errespetua erakusten du eta enpresak eragin dezaketen geografiaz gain, gizarte eta ingurumen akzioen garatzea ere kontuan hartzen ditu. Izan ere, enpresarentzat akzio horiek ez dira indibidualak, denak talde bat osatzen dute eta bat egiten dute enpresaren ongizatearekin (Cronica, 2020). Garrantzitsua da ikuspegi hau izatea, bestela enpresatik kanpoko hainbat faktoreei kalte egin ahal zaielako. Gainera, enpresak hirugarrenei edo ingurumenari kalte egiten badie, eragindako kalteetaz arduratu beharko luke.

1. 5. 5. Etengabeko hobekuntza

Prozesu iraunkorra ez da bukatzen eta perfektionatu edo hobeto egin daiteke. Izan ere, beti egongo dira hobetu beharreko puntuak, produktuak, eragin negatiboak... berrikuntza hauek enpresarentzat, ingurumenarentzat eta gizartearentzat hobego izanik. Hala ere erakunde bakoitzak zehaztu beharko du, dituen baliabideen arabera, egiteko gai den ekintza edo berrikuntza; beti ere, aurreikusita dituen eremuetan egin ditzaken eraginak kontuan hartuta (Delgado).

Esan bezala, enpresa batek egiten dituen produktuak, prozesuak edo estrategiak etengabe optimizatzea da printzipio honen helburua; horrela enpresaren kostuak gutxitzea eta kalitatea hobetzea lortuz. Hau da, berrikuntza garrantzitsua da enpresak aurrera egiteko; eta berrikuntza honen barruan ingurumenean ahalik eta eragin negatibo gutxien izateko ekoizpen prozesuak hobetzen saiatzen dira enpresak. Arrazoi honengatik, erantzukizun sozial korporatiboaren printzipio garrantzitsua da, ingurumenean eragin garrantzitsua izan dezaketen ekintzetan sakontzen direlako (Melo, 2015). Horregatik, enpresak ingurumenari begira egiten dituen berrikuntzak, produktu berrien garapenarekin eta enpresen iraunkortasunarekin nahastu daitezke.

1. 5. 6. Erakundearen izaera soziala

Gizarte erantzukizunean garrantzitsua da erakunde edo enpresak zertan sinesten duen; izan ere, gizarte erantzukizun hau enpresaren helburuen edo izaeraren aurka joan daiteke eta horrela interes gatazkak sortu ditzake enpresa barnean. Alde batetik gobernuak eskatzen duen erantzukizun soziala nahasgarria dela esaten dutenak baitaude eta bestetik, enpresak bizi diren gizartearekiko betebeharrak dutela esaten dutenak. Hala nola, enpresek ezin dute alde batera utzi egunero hartzen dituzten erabakietan etekinak maximizatzeke helburua, hori baita merkatu lehiakorrean irauteko eta beren jarduerak garatzeko oinarria, baina gizarte erakundeak direnez, gizartearen ongizatea sustatu behar dute (Tula, 2001). Horregatik, Estatuak beharrezko baldintzak ezarri beharko lizkieke enpresei gizartearen jardun ahal izateko, ondasunen eta zerbitzuen hornitzaile gisa jardutean gizarte ongizatea gal ez dezaten.



Beraz, aipatu bezala, enpresak izaera soziala duten korporazioak dira. Izan ere, (Tula, 2001)k esaten duen bezala “enpresak ondasun edo zerbitzu partikular bat ekoiztera bideratutako ekintzailatza garatzeko elkartu ziren norbanako multzo baten erabakiz baino ez dira existitzen, eta era berean, enpresa jarduerak egiteko modua gizartea zuzentzen duten arauen mende dago”. Hau da, enpresek une eta leku jakin batean eratzeko eta jarduteko duten modua, jarduera hauek egiten diren lekuko gizartearen ezaugarrien, arauen eta ohituren arabera da. Printzipio honek duen garrantzia azpimarratzeko, kontuan hartu behar da gaur egun inbertitzaileek eta kontsumitzaileek garrantzi handia ematen diotela enpresen jokabideari buruzko etika edo erantzukizunei.

Azkenik, aipatzekoa da sozietateak bere balioak adierazteko tresna eraginkorrak baditu, enpresaren erantzukizun mota eta maila zehaztuko direla sozietateak une eta leku jakin batean dituen balioen arabera.

1. 6. JASANGARRITASUNARI BURUZKO TXOSTENAK

Aurreko atalean aipatutako printzipioak modu desberdinean jasotzen dira kontabilitate edo informazio finantzarioaren esparru kontzeptualean, eta horrek distortsioa eragiten du interes taldeen eskaeren eta erakundeek sortutako informazioaren artean. Horren ondorioz, gizarte erantzukizunaren alderdiei buruzko informazioa emateko modu berriak sortzen dira; orokorrena jasangarritasunari buruzko txostenak eta izanik; atal honetan horiei buruz hitz egingo dugu.

Orain arte aipatu bezala, ingurumenarekin, jasangarritasunarekin eta enpresen gizarte erantzukizunarekin zerikusia duten gaiekiko geroz eta interes handiagoa dago eta horregatik, enpresak bere jarduerak egokitu behar ditu gizarteak eskatzen duenaren arabera. Horren ondorioz, esan bezala, txostenak funtsezko elementu bihurtu dira eta eragin zuzena dute enpresen eta ingurumenaren arteko harremanetan baina kontuan hartu behar da aurreko ataletan aipatutako arazoa, enpresa batzuentzat balioa sortzeko mekanismo bihurtu direla.

Jasangarritasun txosten hauek merkatuan dagoen informazio asimetria murrizten dute nolabait. Izan ere, erakundeek, akziodunek dituzten baliabideen administrazioaren berri ematen dute gardentasun osoarekin eta hau, aurreko atalean azaldu bezala, erantzukizun sozialaren printzipio nagusietako bat da. Hala ere, helburu honetarako bada ere, enpresek geroz eta garrantzi gehiago eman diote emaitza finantzarioez gain aspektu ez finantzarioari dagozkien gauzak argitaratzeari ere, geroz eta garrantzitsuagoak baitira ingurumeneko aspektuak eta aspektu sozialak. Baina kontuan hartu behar da kezka hauek eremu finantzarioan zabaldu arren, enpresaren helburu nagusia akziodunentzat balioa handitzea dela (Correa Mejia, 2017).

Aipatutakoaren harira, gai honek geroz eta garrantzi gehiago duenez, jasangarritasun txostenei buruzko geroz eta ikerketa gehiago daude. Izan ere, aipatu bezala, enpresek beren ekintza edo helburu sozialen gardentasuna hobetzeak hasieran aipatutako



informazioaren asimetria gutxitzen du eta horrela inbertitzaileek inbertsioak ere segurtasun handiagorekin egin ahal dituzte.

Hasiera batean, borondatez eta informazio erakundearen ikuspuntutik egiten dira txosten mota hauek, baina interes taldeen presioaren ondorioz, hornitu beharreko oinarritzko edukia proposatzen duten estandarrak sortu dira (Moneva, 2005).

Txosten mota hauean, informazio finantzarioaz gain, gizarte eta ingurumen alderdiei buruzko informazioa ere ematen da. Informazio hauek bereizita argitaratzea ez da berria, izan ere, XX. mendeko 70eko hamarkadan gizarte kontabilitatea eta gizarte balantzea garatu ziren (Rodriguez, 2007). Hala ere, 1992ko Rio de Janeiroko Lurraren bilerak joera hori aldatu zuen, enpresen inpaktu ekologikoa kontrolatzeko lege eskakizunak bultzatuz. Horrela, enpresek ingurumena kudeatzeko sistemak ezarri behar izan zituzten eta sistema horiek ingurumen txosten bereziak ekarri zituzten. Txosten hauekin garapen jasangarriaren kontzeptua zabaldu eta onartu zen, eta ondorioz, alderdi sozialekiko interesa zabaltzeaz gain, alderdi ekonomikoek eta ingurumen alderdiek beste bide bat hartu zuten. Horregatik, txosten sozialak, oinarri sozialekoak, erantzukizun sozialekoak edo jasangarritasunekoak, hau da, erantzukizun soziala kontuan hartzen duten txostenak indarra hartu zuten.

Lehen esan bezala hasiera batean borondatezkoa izan arren, denborarekin merkatuaren eraginari gobernuko agintarien presioa ere gehitu zaio. Jasangarritasun txostenak gehien erabiltzen dituzten herrialdeen artean, Espainia nahiko leku baxuan kokatuko litzateke, erantzukizun sozial korporatiboari buruzko txostenak aldizka argitaratzea nahiko gertaera berria baita. Bilakaera horrek negozioari lotuta egon ohi diren argudio batzuk ditu. Hona hemen laburpen batzuk (Moneva, 2005):

- Konpainien ospea nabarmendu eta mantentzea.
- Arriskua murriztea.
- Kostuak murriztea eta diru sarrerak handitzea.
- Irabazi asmorik gabeko erakundeekin harremanak sortzea.
- Merkatuaren kapitalizazioa handitzea.

Gaur egun, gizarte erantzukizunarekin zerikusia duten programen inpaktua neurtzea premia bihurtu da enpresen barruan, beren jardueren interes taldeei egiten dieten balio ekarpena aztertzeke eta programa horien emaitzen kontrola eta etengabeko hobekuntza sustatzeko. Lan hori egiteko, enpresek beren irizpide eta arauak bete ditzakete edo aurrez ezarritako metodologiaren bat aplikatu. Lehenengo aukerak malgutasun eta egokigarritasun handiagoa ematen du, baina bigarren aukeran kanpo adierazle erabilerak kontuan hartzen dira eta honek sinesgarritasuna, besteekin erlazionatu eta konparatzea, fidagarritasuna eta sendotasuna ematen ditu denboran zehar.

Nazioarteko ekimen garrantzitsuena Global Reporting Initiative (GRI) da, jasangarritasun txostenak egiteko erreferente nagusia, eta hurrengo kapituluan txosten mota



honetan barneratuko gara. Hala ere, GRI txostenen ereduari sartu aurretik erantzukizun sozial korporatiboa neurtzeko beste metodologia garrantzitsuenen ikuspegi orokorra azalduko da (RSC, C. and metodologías, L., 2020):

1. 6. 1. LGB: Ekarpenak, Lorpenak eta Eraginak

Espanian, 2007az geroztik, London Benchmarking Group-en metodologiak konpromiso sozialeko programen kudeaketa estrategikoa eta eraginkorra lortu nahi izan du, lortutako inpaktuak ebaluatzeko eta horien komunikazio homogeneo eta fidagarria lortzeko. Horretarako, jarduketan hiru neurketa maila bereizten dituen eredu bat garatu du.

Lehenik, kontribuzioak sailkatzen dira, hau da, konpromiso sozialari eskainitako baliabideak, haien motibazioaren, kontribuzio eremuaren eta ekarpen motaren arabera. Bigarrenik, lortutako lorpenen edo emaitza zehatzen ebaluazioa egiten da, bai komunitatearentzat eta baita enpresarentzat ere. Azkenik, egindako ekintzak ekonomian eta gizartean izan dituen eraginak neurtzen ditu. Eredu honen puntu nagusiak biltzen dituen LBG matrizearen bidez, epe laburreko lorpenez gain, enpresen konpromezu sozialeko ekimenen epe luzeko inpaktuak ere kuantifikatu nahi dira.

1. 6. 2. GC Value Driver Model: Inbertitzaileentzako finantza *reporting*-aren gunea

2013an garatutako Mundu Itunaren arabera, Value Driver ereduaren helburu nagusia antolakuntzan interesa duten inbertitzaileei eta analistei enpresa estrategia iraunkorren balio ekonomikoa jakinaraztea da, emaitzak erakundearen finantza-adierazleetara eramateko. Metodologiak hiru dimentsio bereizten ditu balioa sortzeko mekanismo gisa: hazkundera, produktibitatea eta arriskuaren kudeaketa.

Alde batetik, diru-sarrerak gehituz balioa sortzeko bideek hazkunde txikia izan dute. Produktibitateari dagokionez, eraginkortasun operazional handiagoaren eta erakundearen giza kapitalaren kudeaketa eraginkorragoaren bidez lortutako kostumurrizketak neurtzen ditu metodologia honek. Azkenik, arriskuaren kudeaketa, erantzukizun sozial korporatiboaren estrategien bidez balioa sortzeko iturri gisa jasotzen du ereduak.

1. 6. 3. Social Return on Investment: “outcomes”-en balorazioa

SROI metodoa Roberts Enterprise Development Funden eskutik sortu zen 1997an. Enpresa jardueraren eragina ulertu eta kudeatzeko ikuspegia da, inpaktuaren dimentsio soziala azpimarratuz balioa kontabilizatzeko esparrua. Helburua jarduera edo erakunde batek sortzen duen balio soziala, ingurumenekoa eta ekonomikoa ulertzea, balio positiboa maximizatzea eta, aldi berean, eragin negatiboa kontrolatzea da. Enpresen jarduerak sortutako eta suntsitutako balioa kuantifikatu nahi du SROIk (moneta terminoetara); horrela, ikuspegi integrala errazten du, baina horrek, era berean, aldakortasuna dakar. Horretarako, zenbait fasetan oinarritutako metodologia erabiltzen



du: funtsezko interes-taldeak ezarri eta identifikatzea, emaitzak mapatzea (*outcomes*), emaitzak zehaztu eta baloratzea, eragina ezartzea eta emaitzak erabili eta komunikatzea.

1. 6. 4. Negozioak Erkidegoan: CR indizea eta Azterna Komunitarioa

Britainia Handiko Business in the Community erakundeak bi tresna garatu ditu erakundeen ekintza arduratsuen eragina kuantifikatzeko.

Alde batetik, CR Index indizea dugu, on line egindako inkesta batean oinarritutako indizea, non parte-hartzaileak bost jarduera-taldetan taldekatzen diren errendimenduaren arabera lau dimentsiotan: estrategia korporatiboa, integrazioa, kudeaketa eta errendimendua eta eragina. Enpresen gizarte erantzukizuneko ekintzen gizarte-balioa kudeatzean eta komunikatzean duen gardentasuna da bere ardatz nagusia. Bestalde, BITC proiektu baten buru da. Horren bidez, enpresek beren eragin sozioekonomikoa neurtu eta kudeatzeko tresna multzo bat eskaini nahi da: Azterna komunitarioa.

Programa hori, oraingoz, pilotu-fasean dago. Fase horien bidez, enpresek beren inpaktuen garrantzia baloratu, tokian tokiko beharren arabera hobetu eta ekintza-aukerak detektatuko ditu.

1. 6. 5. Gizarte-sustapena: Balio ekonomikoaren ikuspegi orokorra

Ikuspegi hau Seres fundazioak garatu zuen 2011n, McKinsey & Companyren sustainability compass delakoan oinarrituta. Enpresen gizarte-erantzukizuneko ekintzek sortutako balio ekonomikoa osorik neurtzeko metodologia da. ESKan erabakiak hartzen laguntzeko tresna izateaz gain, bere programen barruko nahiz kanpoko komunikazio ekintzetarako oinarria ere bada. ESKaren ekintzen bidez enpresarentzat sortutako balio ekonomikoa biltzen du hiru dimentsioen bidez: hazkundera, kapitalaren itzulera eta arriskuaren kudeaketa.

Hazkundera, diru-sarrerak handituz balioa sortzea esan nahi du, merkatu berrietarako sarbidea, berrikuntza, produktu berri, lehiakortasun eta gizarte posizionamendua bezalako palankekin.

Kapitalaren itzulera txikiari dagokionez, metodologia honek kostu-murrizketak jasotzen ditu, hornidura-katea optimizatuz, eragiketen eraginkortasuna handituz eta giza kapitala garatuz. Azkenik, ESKaren eragina kuantifikatzen ere laguntzen du, eragiketa, ospe eta arauen arriskua murriztuz.

1. 6. 6. EADA: inpaktu soziala neurtzeko gaitasunen ikuspegia

Metodologia hau 2013 urtean jarri zen abian, enpresei beren ekimenen gizarte-eragina justifikatzeko aukera emango dien eredu gisa, enpresetan ESKaren ekimenak eta haien



eragina areagotzeko helburuarekin. Metodologia honek balio soziala neurtzen du onuradunengan garatutako gaitasunen kontzeptutik abiatuta, haien ongizatearen eta bizi-kalitatearen adierazle gisa. EADAREN inpaktu sozialaren ereduak epe laburreko eta luzeko emaitzak biltzen ditu, onuradunaren hobekuntzan oinarrituta.

Azken finean, aipatutako aukerez gain, beste hainbat daude eta erakundeak baloratu beharko du bere beharretara ondoen egokitzen dena zein den; horretarako, enpresaren erantzukizun sozial eta enpresarialeko programek, gizartean eta enpresetan duten eraginari buruzko ikuspegi ulergarria lortzeko tresnak aukeratzen saiatu beharko dute. Erakundeak kontuan izan behar du metodologia horiek guztiak ez direla baztertzailak, baizik eta hainbat tresna erabil daitezkeela lortu nahi diren helburuen eta enpresaren estrategiaren arabera. Nolanahi ere, funtsezkoa da erantzukizun sozial korporatiboaren ekintzak neurtzeko kultura ezartzea eta erakundeari erabakiak hartzeko prozesuak hobetzea.

II. KAPITULUA

2. 1. GLOBAL REPORTING INITIATIVE (GRI)

Gaur egun, oraindik, kontuan hartu behar da gizarte erantzukizunaren garapena hasiberria dela, enpresak gizarte eta ingurumen kontzientzia gauzatzen ari dira, beren jardueren ingurune natural eta sozialean ahalik eta eragin positibo handiena izango dutela bermatuko duten politiketan, ikuspegietan eta neurrietan. Ingurune hori, mundu globalizatuan, izugarri zabaltzen ari da eta are konplexuagoa da haren garapen osoa, horregatik jasangarritasun txostenak erabiltzen dira garapen hau aurrera eramateko. Aurreko kapituluan aipatu dugun bezala, jasangarritasun txosten mota asko daude baina Global Reporting Initiative (GRI) txostenak dira jasangarritasun txostenak egiteko erreferente garrantzitsuenak eta kapitulu honetan, txosten mota hau sakon aztertuko dugu. Lehenik, GRIren datu garrantzitsuak aipatuko ditugu, historia ere aipatuz, nondik datorren eta zer den hobeto ulertzeko. Ondoren, zuzentarauen G4 bertsioa azalduko dugu, GRI estandarren azken bertsioaren erreferente dena. Azkenik GRI estandar hauen hiru indikatzaile nagusienak azalduko dira, bakoitzaren barnean dauden estandarrek ere aipatuz.

GRIk esaten duenez, jasangarritasun txostenek, erakundeei beren jasangarritasun arazoaren inpaktuak kontuan hartzea baimentzen die eta honek arriskuen eta aukera desberdinen inguruan gardentasun gehiago izatea ahalbidetzen du. Zehatzagoak izateko, jasangarritasun memoria batean, enpresa edo erakunde batek bere eguneroko jardueren eragin ekonomikoak, ingurumenekoak eta sozialak argitaratzen ditu. Horregatik, GRIren jasangarritasunari buruzko informazioaren ikuspegia “triple botton line” kontzeptuan oinarritzen da, garapen jasangarriaren hiru elementu nagusiak irudikatzen dituelarik; aipatutako ekonomia, ingurumena eta gizartea (Rodriguez, 2007). Hala ere, “triple botton” eredu honen hiru indikatzaile nagusi hauek beranduago aztertuko ditugu. Horrela, ekintza bat egiterakoan guztientzako onura bilatu ahal da, indikatzaile guztiak kontuan hartzen baitira, eta aurreko kapituluan azaldu bezala,



alderdi interesdun askoren ekarpenekin garatzeaz gain interes publikoan ere oinarritzen direlako. Aipatzekoa da eredu honek bazkide askoren babesa duela eta bazkide hauek agendari forma ematen laguntzen diotela, garapen jasangarrian aurrera egiteko, egiten duen lana babesten baitute gardentasun eta erantzukizun handiagoaren bidez. GRI metodologiaren helburua enpresek ekonomia, gizarte eta ingurumenari buruz zabaltzen duten informazioa erraz alderatzeko irizpide homogeenak osatzen laguntzea da.

Jasangarritasunari buruzko informazioa zabaltzeak erantzukizuna sortzen du enpresa edo erakundeetan; izan ere, enpresa barneko zein kanpoko informazio asko zabaltzen da eta bertan jartzen dena egin beharko da iruzurrik gabe, hau da, gardentasun osoarekin, hirugarrenek hori ere kontuan hartzen dutelako. Gainera, arriskuak identifikatzen eta kudeatzen laguntzen du, horrela erakundeei aukera berriak baliatzeko aukera emanez. GRI estandarrekin txostenak aurkezteak enpresa mota guztiak babesten ditu, bai publikoak baita pribatuak ere, eta baita enpresa handi zein txikiak. Aldi berean, aurrera egiten dute ekonomikoki, gobernantza eta alderdi interesdunekiko harremanak hobetuz, ospea hobetuz eta konfiantza sortuz. Laburbilduz, ingurumena zein gizartea hobetzen dute.

Enpresa mota guztiak babesten dituela esan dugu, beraz, munduko konpainia handienekin ere lan egiten du, aldaketa positibo baterako indar gisa. Aldaketa horien artean herrialde guztietako BPGa baino diru sarrera handiagoak dituzten konpainiak eta mundua hedatzen laguntzen duten hornikuntza kateak daude. Txosten mota hauentzat puntu garrantzitsuak zeintzuk diren aipatu ditugu eta bere xedea ere puntu horien arabera da: "Guztionez onura sozialak, ingurumenekoak eta ekonomikoak sortzen dituzten erabakiak bultzatzea" (Global reporting). Horren harira, beraien produktu nagusia doako ondasun publiko gisa eskuragarri dauden jasangarritasun txosten estandarrek dira. Beraz, 3 indikatzaile nagusiei (ekonomia, ingurumena eta soziala) buruzko informazioa emateko munduko jardunbide onenak dira GRI estandarrek.

Beraz esandako guztia kontuan hartuta hurrengo esan daiteke; GRI erkidegoak, interesa dutenei, gardentasun handiagoaren bidez elkarlanean egiten duten ekonomia global jasangarri baten helburu komuna lortzeko aukera eskaintzen die. Horretarako, prozesuaren etapa bakoitzean antolaketaren iraunkortasun txostena garatzeaz arduratzen direnak gidatzeko eta hornitzeko tresnak eta zerbitzuak eskainiz (Geba, 2016).

Hasieran, CERES erakundearen talde objektiboen enpresetako kontabilitate mekanismoak diseinatzeko sail gisa sortu ziren GRI zuzentarauak. Baina hasierako helburu horretatik urruti, orain arte zuzentaruauen lau bertsio desberdin argitaratu dira. Lehenengoa, G1 bertsioa, 2000 urtean argitaratu zen topiko sozialetan, ekonomikoetan eta gobernantzan oinarrituz eta azkena, 2016an argitaratu zen, gaur egun erabiltzen diren GRI estandarrek. GRIren arabera, 2000 urtean 11 txosten bakarrik egin ziren, baina 2005 urterako, mundu mailan, 300 ziren egindakoak. 2016 urterako 31.097 egin ziren, horietatik 1.926ek 2013an argitaratu zen G4 bertsioa erabiltzen zutelarik. Beraz, datu hauek ikusita, nabaria da azken urteetan izan duen garrantzia. Dena den, G4 bertsioa



gaur egun erabiltzen den GRI estandarren erreferentea denez, sakon aztertuko dugu geroago dagoen atalean, baita bertsio honetara iritsi arteko pausu garrantzitsuenak ere.

2. 2. GRI-REN HISTORIA

GRI irabazi asmorik gabeko nazioarteko erakunde independentea da, eta iraunkortasun txostenetan aitzindaria izan da 1997tik. “1997an hasi zenetik, nitxo-praktika batetik, gaur egun geroz eta erakunde gehiagok onartzen duten praktika batera aldatu dira GRI jasangarritasun txostenak. Izan ere, munduko 250 korporazio handien %93k beren jardun iraunkorrari buruzko informazioa ematen dute” (Global Reporting, 2020).

1997an, ingurumenaren arduradunak diren ekonomiako koalizioak askotariko alde interesdunen (*multistakeholderren*) ekimen berri bat hitzartu zuen GRI izenarekin. Ekimen honek borondatezko arau batzuk garatu zituen jardueren, produktuen eta zerbitzuen inpaktuak zabaltzeko, eta horrela jasangarritasunari buruzko informazioari eta gardentasunari lagundu zion. Baina 1999 urtean Suitzako Davos hirian egin zen munduko foro ekonomikoan, enpresetatik mundu ituna proposatu zen oinarritzko baloreak babesteko (Ponce, 2020). Balore hauek milurtekoaren zortzi helburuen barnean daude, hauek hurrengoak izanik:

- Muturreko pobrezia eta gosetea ezabatzea
- Lehen mailako ikasketa unibertsalak lortzea
- Sexu ezberdinen arteko berdintasuna eta emakumeen ahalduntzea sustatzea
- 5 urte baino gutxiago dituzten umeen heriotza tasa murriztea
- Amaren osasuna hobetzea
- GIBa, HIESa, malaria eta beste gaixotasun batzuei aurre egitea
- Ingurumenaren iraunkortasuna bermatzea
- Garapenerako munduko elkarteak sustatzea

Horrela, 2000 urtean GRIk gida bat argitaratu zuen, jasangarritasunaren ulermenerako lehen esparru globala den zuzentaraua. Aipatutako gida hau 2002 urtean berrikusi zen jasangarritasun txostenak egiteko adierazle batzuen bidez ingurumenari, gizarteari eta ekonomiari buruzko informazioa bilduz eta horrela zuzentzarauen bigarren bertsioa argitaratu zen (G2), garapen jasangarriari buruzko munduko goi bileran aurkeztu zena. Dimentsio finantzarioan, ingurumenekoan eta sozialean antolatutako 54 adierazle zentral zituen jardueren analisiei buruzko marko orokor bat ezarri zen (Rivera Virgüez, 2011).

2006an GRIren jasangarritasunari buruzko txostenak ikaragarri hazi ziren eta hau, batik batik G3 bertsioaren jaurtiketaren ondorioz izan zen. Izan ere, enpresen, gizarte zibilaren eta lan mugimenduen 3.000 aditu baino gehiagok parte hartu zuten bere garapenean (Global Reporting, 2020). 2009an GRIren erabiltzaileentzako zerbitzuak zabaltu ziren softwarearen ziurtagiria sartzeko. Horren helburua GRIren edukiak zehaztasunez erabiltzen direla ziurtatzea zen. Ziurtatu ondoren GRIk softwarean edo tresna digitalean



edukiak erabiltzeko baimena ematen du eta baimen gutun bat igortzen du erabilera hau 12 hilabetetan zehar baimenduz.

2011 urtean azken zuzentzauek eguneraketa bat izan zuten, G3.1 sortuz. Bertan, generoarekin, komunitatearekin eta giza eskubideekin lotutako jardueren berri emateko gida zabaldua argitaratu zen.

2013an zuzentzauren laugarren bertsioa jaurti zen (G4), hurrengo atalean zehatzago aztertuko duguna. Bertsio hau online hilabete batzuk beranduago jaurti zen, G4 zuzentzauren txostenen eta dibulgazioen printzipio estandarrekin ohituta zeudenentzat, zuzentzauren eduki osoa formatu dinamikoan aurkezten zuen webean oinarritutako doako tresna bat izanik. Hurrengo urtean, GRI eduki indizearen zerbitzua jarri zen abian, G4ean oinarritutako txostenen eduki indizearen zehaztasuna ziurtatzeko egiaztapen zerbitzua ematen duena, eta ondoren, G4, G3.1 eta G3 jarraibideak betetzen zituen bertsio bat atera zen.

2015 urtean, garapen iraunkorraren helburu berriak jaurti ziren. Helburu horiek garapenaren eta finantzaren politikak bideratzen dituzte etorkizun iraunkor batera bideratuz eta ikuspegi horrekin garrantzi handiagoa hartzen dute txostenetan jasangarritasunari buruz jaso diren datuek. Horrela, txosten mota hauen garrantzia nabarmenagoa egin zen, eta 2016eko urrian, jasangarritasun txostenetarako lehen estandar globalak plazaratu ziren, GRI estandarrak. Jasangarritasun estandar globalen batzordeak (GSSB) garatuta, GRI estandarrek erakunde guztiei eta hirugarrenei beren eragin ekonomiko, ingurumen eta sozialen berri emateko aukera emateaz gain, garapen jasangarriari nola laguntzen dioten erakusteko aukera ere ematen die. GRI estandar hauek, G4 zuzentzauren kontzeptu eta zabalkunde nagusi guztiak biltzen dituzte, baldintza argiagoeekin eta hizkuntza sinpleagoarekin hobetuak, horrela ulergarriagoak izanik.

2. 3. ZUZENTZARAUEN G4 BERTSIOA

Esan bezala, gaur egun erabiltzen diren GRI estandarrak zuzentzauren G4 bertsioan oinarritzen dira eta horregatik bertsio hau sakon aztertuko da. Aipatutako G4 bertsioak bi helburu nagusi ditu: Lehena, memoriak egiten dituztenei jasangarritasun txosten esanguratsuak egiten laguntzea da, bertan jasangarritasunarekin zerikusia duten erakunde bakoitzaren alderdi garrantzitsuenei buruzko datu erabilgarriak bilduz. Bigarrena, memoria hauek ohiko jarduera izaten laguntzea. Horregatik, gidaliburuak eta eskuliburuak egiten dituzte, enpresei dagokien jasangarritasun memoria egiten, argitaratzen eta sozializatzen laguntzeko (Rodríguez Guerra, 2016).

Gida honekin GRIk eman duen aurrerapausoa oso handia izan da, jasangarritasunaren kudeaketa ardatz zentral bezala hartzen delako. Azken gida honek jasangarritasun txostenak lantzea errazten du, horretarako benetan nabarmenak diren gaietan bakarrik zentratuz, laburragoak izateko, eta gainera, gardentasun, konpromezu eta interes taldeekiko konfiantza handiagoa izaten laguntzen du, balioa sortuz. Horrela, enpresak



ez ditu garrantzi txikiagoko gaietarako buruzko datuak hartu behar. Kontuan hartu behar da, garrantzi txikiak gai hauek maiz ahalegin eta baliabide asko eskatzen dituztela. Bestalde, memoriak beraien kabuz enpresen jasangarritasunaren kudeaketa hobetzen laguntzea posible egiten du.

G4 bertsio aurreko zuzentzaruetatik desberdina den formatu batean aurkezten da, bi zati dituelarik. Alde batetik, memoriak lantzeko printzipioak eta oinarriko edukiak daude. Hauek deskribatzeaz gain, erakundeek jasangarritasun txostenak gida berri honen adostasunarekin egiteko ezarri beharreko irizpideak ere deskribatzen dituelarik. Bestalde, inplementatzeko eskuliburuak daude; memoriak lantzeko printzipioak nola ezarri behar diren azaltzen du; informazioa nola prestatu behar den eta gidan aipatzen diren kontzeptuak nola interpretatu behar diren zehazten du. Gainera, beste iturri batzuei buruzko ohar orokorrei buruzko erreferentziak ere sartzen dira (Mas Business, 2013).

Zuzentzaruen bertsio berri honek, finkatuak izan diren edukiak eta indikatzaileak puntu identifikatzea eskatzen du, horrela bere irakurleei aurkeztutako informazioaren sinesgarritasunari buruzko iritzi propioa izateko aukera emanez, eta balio handiagoa sortuz. Gainera, lehen aipatu bezala, finkapen edo aseguramendu hori errazagoa izango da enpresentzat oinarriko gaitan zentratua egongo direlako (Scade, 2013).

Esan bezala, munduko itunak eta GRIk, bien arteko hitzarmena berri zuten 2013ko maiatzean eta horrek bi erakunde hauen arteko elkartasuna ekarri zuen urte luzez. Mundu itunak, enpresak giza eskubideak, estandar laboralak eta ingurumen kudeaketak integratzeko prozesuetan oinarritutako lan markoa eskaintzen du. Gainera, parte hartzaileek urtero beraien aurrerapenak edo garapenak azaldu beharko dituzte. G4 bertsioa GRI jasangarritasun txostenak egiteko lan marko zabalago batetik abiatzen da. Bertsio honek, administrazioaren ikuspuntutik, txostenak lantzeko printzipioen multzoak, eta estrategia, profil, gobernu, interes taldeen parte hartze, etika eta integritatearen oinarriko edukiak eskaintzeaz gain; jasangarritasunaren jardueren eta eraginen memoriak lantzeko indikatzaileak ere eskaintzen ditu.

G4 bertsioaren eduki nagusiek Mundu ituneko parte hartzaileei COPEko baldintzak zabalitzen laguntzen die ondoren aipatuko ditugun hiru eduki moten bidez:

- Oinarriko eduki nagusiak: Informazioaren kontestu nagusia eta jardueren eta erakundearen eraginen ulermena ezartzen ditu; hala nola, estrategia, profila, gobernu korporatiboa, etika eta integritatea.
- Oinarriko eduki espezifikoak: G4aren aspektuak
 - Kudeaketa ikuspuntua: Aspektu materialekin zerikusia duten eragin ekonomikoak, ingurumenekoak eta sozialak nola kudeatzen diren azaltzen du. Erakundeak hiru eremu hauetan duen eragin erreal eta potentzial garrantzitsuenak identifikatzeko, aztertzeko eta erantzuteko modua deskribatzen du.



- Indikatzaileak: Erakundearen emaitzei buruzko informazio kualitatiboa eta kuantitatiboa ematen du, alderagarriak izanik eta denboran zehar izandako aldaketak erakutsiz.

Aipatutakoaz gain, G4 bertsioaren arabera, jasangarritasun txostenak egiteko bi aukera daude. Alde batetik, oinarritzko aukera dago, jasangarritasun txostenaren oinarritzko edukiak dituen eta 3 eremu hauen ondorioak adierazten dituen. Bestetik, aukera zehatza dago; honek oinarritzko edukiak garatzeaz gain, zehatz mehatz azaldu behar ditu bere jarduerak, horretarako aspektu materialekin zerikusia duten indikatzaileak kontuan hartuz. Aipatzekoa da edozein erakunde bi aukeretak edozein erabili dezakeela (Pacto global, 2013).

2. 4. GRI ESTANDARRAK

Aurreko atalean G4 bertsioa sakonago aztertu da, eta horren arrazoia GRI estandarrak bertsio horretan oinarritzen direla da, hau da, G4 bertsioa estandarrengatik ordezkatu izan da. Aurreko bertsioarekiko estandar berri hauen aldaketa handiena elkarrekin erlazionatuta dauden moduluak dira, horrela gai bakoitza eguneratzean edo berriak eranstean malgutasun handiagoa emanez.

GRI estandarrak munduko praktika onenak dira ekonomia, ingurumen eta gizarte eraginaren aniztasunari buruzko informazio publikoa emateko. Erakunde batek garapen jasangarriari egindako eragin positiboak edo negatiboak buruzko informazioa ematen dute. Elkarrekin lotuta dauden GRI estandar hauek multzo bezala erabiltzeko diseinatuak daude, hau da, denak batera, gai materialetan oinarritutako jasangarritasun txostena prestatzeko. Zehazki, 36 estandar jaurti dituzte 6 multzotan taldekatuta; horietatik 3 unibertsalak izanik eta beste hirurak aipatutako ekonomikoa (200), ingurumenekoa (300) eta soziala (400) izanik (Corresponsables, 2016)

Hiru arau unibertsalek iraunkortasun txostena prestatzen duten erakunde guztiek erabiltzen dituzte. Horietaz gain, erakunde batek gaiaren berriazko estandarren artean ere aukeratzen du bere gai materialen berri emateko: ekonomikoak, ingurumenekoak edo sozialak. Erakunde batek hautatutako GRI estandar guztiak edo batzuk erabil ditzake informazio espezifiko emateko (Global Reporting, 2020).

Global Reporting Initiativek (GRI) Ekonomia Lankidetzan eta Garapenerako Antolakundearekin (ELGA) lankidetzan, jasangarritasun irizpideak zehaztu, ezarri eta estandarizatzeko lan egiten du, egoerari buruzko txostenak eta azterlanak eginez eta horien ondorioak argitaratuz. Besteak beste, aipatutako GRI adierazle edo indikatzaileak sortzen dituzte, ekonomikoak, ingurumenekoak eta sozialak. Esan bezala, aurreko atalean aztertutako G4 bertsioa GRI estandar hauen aitzindaria dela kontuan hartu behar da.

Indikatzaile horiek behar bezala estandarizatuta daude nazioartean aplikatzeko, eta guztiz bateragarriak dira gizarte erantzukizunari buruzko ISO 26000 araua bezalako



beste erreferentzia estandar batzuekin. Adierazle hauen helburu nagusia konpainia guztiek beren eragiketen iraunkortasunari buruzko txostenak egiteko adierazle estandarizatuak izatea da, beren jarduerak arautzeko eta kontrolatzeko neurriak ezarri eta ondoriozko erantzukizunaren mailari buruzko txostenak egiteko aukera emanez. Adierazle hauek onartzea borondatezkoa da baina oso onuragarria konpainiaren irudia hobetzeko.

Indikatzaile edo estandar bakoitza hurrengo 3 atal nagusietan dago banatuta (Global reporting). Lehenik, errekerimenduak daude, nahitaezkoak diren jarraibideak. Gomendio edo gidalerroen testuinguruan irakurri behar dira. Hala ere, erakundeak ez daude gomendio eta gidalerroak betetzera behartuta txostena estandar horien arabera egin dela deklaratzeko. Bigarrenik, aipatutako gomendioak daude, nahitaezkoak ez diren neurri zehatzak hartzera bultzatzen du. Azkenik, gidalerroak daude eta bertan aurrekarien azalpenen eta adibideen informazioa erabiltzen da erakundeak errekerimenduak hobeto ulertzeko. Hau esanda, hiru adierazle hauek aztertzeaz gain bakoitzaren barnean dauden estandarrak ere aztertuko ditugu:

2. 4. 1. Errendimendu ekonomikoaren adierazlea

Adierazle hauek EC adierazpena eta ondoren zenbaki baten bidez adierazten dira. Salmenta garbiak, kostuak, ordainketak eta hornitzaileekiko harremanen monitorizazioa bideratuak daude (EAE Business School, 2015). GRI estandarren testuinguruan, jasagarritasunaren dimentsio ekonomikoak, erakunde batek bere interes taldeen baldintza eta sistema ekonomikoetan dituen eraginekin du zerikusia. Errendimendu ekonomikoko estandarrak 200 zenbakiaz adierazten dira eta interes talde desberdinen kapital fluxua aztertzeaz gain, erakunde batek gizartean dituen eragin ekonomiko nagusiak ere aztertzen dituzte. Enpresek beren jardura eta inpaktu finantzarioak nabarmentzearen kontzientzia hartzea bilatzen du (Rodriguez Guerra, 2016). Hurrengoak dira adierazle honen barnean dauden estandarrak (Global reporting, 2020):

GRI 201 Jarduera ekonomikoa: Erakundeak sortutako eta banatutako balio ekonomikoa, zehaztutako irabazi planarekin lotutako betebeharrak, edozein gobernutik jasotzen dituen laguntza finantzarioak eta klima aldaketa dela eta sortutako ondorio finantzarioak sartzen dira estandar honen barruan. Horrela, estandar honen edukiek, erakunde batek jardura ekonomikoari dagokionez dituen eraginei buruz eta horiek kudeatzeko moduari buruz informazioa eman dezakete.

GRI 202 Merkatuan presentzia: Izenak dioen bezala, erakunde batek merkatuan duen presentziari buruzko informazioa ematen du, eta lan egiten duen eremuetan garapen ekonomikoari ematen dion ekarpenak azaltzen ditu. Adibidez, erakundeak ordainsariari edo tokiko kontratazioari buruz duen ikuspegia sar daiteke. Estandar honen edukiek erakunde batek merkatuaren presentziari dagokionez dituen eraginei buruz eta horiek kudeatzeko moduari buruzko informazioa eman dezake.



GRI 203 Zeharkako eragin ekonomikoak: Eragin ekonomikoa, komunitate edo interes talde baten ongizatean eta epe luzeko garapen aurreikuspenetan eragiten duen ekonomiaren ekoizpen potentzialen aldaketa bezala definitu daiteke. Estandar honek ordea, izenak dioen bezala, zeharkako eragin ekonomikoak jorratzen ditu eta hauek finantza transakzioen eta erakundearen eta interes taldeen arteko kapital fluxuaren zuzeneko eraginaren ondorio gehigarriak dira. Horretaz gain, erakundeak azpiegituretan eta laguntza eman duen zerbitzuetan egindako inbertsioen eragina ere jorratzen du. Zeharkako eragin ekonomiko hauek monetarioak edo ez monetarioak izan daitezke eta hauek ebaluatzea oso garrantzitsua da tokiko eta eskualdeko erkidegoetako ekonomietarako. Estandar honen edukiek erakunde baten zeharkako eragin ekonomikoen eta hauek kudeatzeko moduari buruzko informazioa eman dezake.

GRI 204 Kontratazio praktikak: Erakundeak lekuko hornitzaileei edo talde ahuleko kideei ematen dien laguntzaz hitz egiten du. Horretaz gain, erakunde baten kontratazio praktikak (hornitzaileei ematen dien elaborazio denborak edo negoziatzen dituen erosketak prezioak) ekoizpen katean eragin negatiboak dituen ere aztertzen du. Estandar honen edukiek, erakundearen kontratazio praktiken eraginei buruz eta hauek kudeatzeko moduari buruzko informazioa eman dezakete.

GRI 205 Korrupzioaren aurka: Ustelkeri edo korrupzioaren barnean sartzen dira askotan entzun izan diren sobornoa, errazte ordainketak, iruzurra, estortsioa, kolusioa eta kapitalen zurtzea. Horietaz gain, opariak, maileguak, ordainsariak edo bestelako abantailak eskaini edo jasotzea ere sartzen dira honen barnean; eta baita legez kanpoko den edo konfiantza abusua dakarren zerbait egitera bultzatzea ere. Beste praktika batzuk ere sar daitezke; hala nola, bidegabeko erabiltza, influentziak, botere abusua, legez kanpoko aberastea eta justizia oztopatzea. Hau denagatik, ustelkeriak eragin negatiboekin zerikusia du; eragin horien artean transakzio ekonomietako pobrezia, ingurumena kaltetzea, giza eskubideen eta demokraziaren abusua, inbertsioak bidegabeki esleitzea eta legea desbaimentzea egonik. Ondorioz, merkatuak, arau internazionalak eta interes taldeek, erakundeek integritatearekin, gobernuarekin eta enpresa praktika arduratsuekin duten konpromezua erakustea eskatzen dute. Estandar honen edukiek, erakundeak ustelkeriari buruz dituen eraginak eta hauek kudeatzeko moduari buruzko informazioa eman dezakete.

GRI 206 Lehia desleiala: Lehia desleialaren edo bidegabekoaren barnean sartzen dira praktika monopolikoak eta lehia askearen aurkakoak. Bertan aipatzen dira lehiakideek merkatuan dituzten efektuak mugatzeko asmoz, lehiakideekin talka egitea ekar dezaketen erakunde baten edo bere langileen ekintzak. Lehia desleial honen adibide garbiak dira prezioen finkapena, eskaintzen koordinazioa, merkatu edo ekoizpen murrizketak sortzea, kuota geografikoak ezartzea eta bezero, hornitzaile, eremu geografiko edo produktu lerroak esleitzea. Aipatutako praktika monopolioak eta lehia askekoak, sektorean sartzeko edo lehia beste edozein modutan oztopatzeko talka eragiten duten erakundearen ekintzak dira. Horren barnean sar daitezke merkataritzako praktika desleialak, merkatuko posizioaren abusua eta lehiaren aurkako fusioak.



Estandar honen edukiek, erakundeak lehia desleialari buruz dituen eraginak eta hauek kudeatzeko moduari buruzko informazioa eman dezakete.

GRI 207 Zerga sistema: Zergak diru sarrera garrantzitsuak dira gobernuarentzat, eta beharrezkoak dira politika fiskalerako eta herrialdeen egonkortasun makroekonomikorako. Gainera, erakundeek lan egiten duten herrialdeetako ekonomiari laguntzeko mekanismoaren gakoak dira. Erakunde batek ordaintzen dituen zergek, errentagarritasuna erakundetik kanpoko faktore askoren mende dagoela erakusten dute, besteak beste, langileen, merkatuaren eta azpiegituren sarbideen, zerbitzu publikoen, baliabide naturalen eta administrazio publikoen mende. Erakundeek, legeria fiskala betetzeko beharra dute; izan ere, beren zerga betebeharrak jurisdikzio batean murrizten saiatzen badira, gobernuari diru sarrerak kendu ahal dizkiote eta honek azpiegituretan eta zerbitzu publikoetan inbertsio txikiagoa izatea, gobernuaren zorra handitzea edo betebeharrak fiskala beste zergadun batzuei helaraztea dakar. Fiskalitateari buruzko txosten publikoen elaborazioak gardentasuna areagotzeaz gain, konfiantza eta sinesgarritasuna sustatzen ditu erakundeek jarduera fiskaletan eta zerga sisteman. Estandar honetako edukiek erakundeek zerga arloan duten kudeaketa ikuspegia ulertzen eta komunikatzen laguntzeko eta herrialde bakoitzeko diru sarreraren, zergen eta enpresa jardueren berri emateko diseinatu dira. Herrialde bakoitzeko txostenen aurkezpena egiteak ondorengoa esan nahi du; finantza, ekonomia eta fiskalitate informazioa ematea erakundeak lan egiten duen jurisdikzio bakoitzean.

2. 4. 2. Ingurumen errendimenduaren adierazleak

Ingurumen errendimenduaren adierazleak EN siglekin eta ondoren zenbaki batez identifikatzen dira. Lehengaien eta baliabideen kontsumoa, hondakin-isurketak, isurketa kutsatzaileak monitorizatzea eta beste hainbat gai hartzen ditu kontuan (EAE Business School, 2015). GRI estandarren testuinguruan, jasangarritasunaren ingurumen dimentsioak erakundeak sistema natural bizi eta geldoetan (lurra, airea, ura eta ekosistemak barne) dituzten inpaktuekin du zerikusia. Enpresen produkzio prozesuek ingurumenean izaten dituzten zuzeneko edo zeharkako inpaktuetan oinarritzen da (Rodríguez Guerra, 2016). Hurrengoak dira adierazle honen barnean dauden estandarrak (Global reporting, 2020):

GRI 301 Materialak: Erakundearen produktuak eta zerbitzuak fabrikatzeko eta ontziratzeke erabiltzen diren inputak material ez berriztagarriak izan daitezke; hala nola, mineralak, metalak, petrolioa, gasa edo ikatza; baina material berriztagarriak ere izan daitezke, ura edo egurra adibidez. Bi material mota hauen osagaiak birziklatuak edo erabili gabeak ere izan daitezke. Erakundeak erabiltzen dituen material motek eta kantitateek baliabide naturalen dependentzia eta bere erabilgarritasunak sortzen dituen eraginak adierazi ditzazke. Erakundeak baliabideak kontserbatzeko egiten duen ekarpena, materialak, produktuak eta ontziak birziklatu, berreskuratu eta berrerabiltzean islatzen da. Estandar honen edukiek, erakundeak materialen inguruan dituen eraginak eta inpaktu horiek nola kudeatzen dituen azaltzeko informazioa eman dezake.



GRI 302 Energia: Erakundeek energia kontsumitu dezakete erregai, elektrizitate edo berogailuekin adibidez. Energia hau autogeneratu egin daiteke baina kanpo iturrietatik ere erosi daiteke, azken hauek berriztagarriak (haizea, ura, eguzkia) edo ez berriztagarriak (ikatz, petrolio, gas naturala) izan daitezkeelarik. Energia berriztagarriak hautatzea eta modu efizientean erabiltzea funtsezkoa da klima aldaketari aurre egiteko eta erakundeak ingurumenean duen eragina murrizteko. Energia kontsumoa erakundearen jardura arrunten bidez gerta daiteke eta baita kontsumitzaileek produktuei ematen dieten erabilgarritasunarekin; hau da, produktu hauei ematen zaien balio bizitzarekin. Estandar honen edukiek, erakundeak energiarekin zerikusia duten eraginei buruz eta eragin hauek kudeatzeko moduari buruzko informazioa eman dezakete.

GRI 303 Ura eta efluenta: Estandar honek 2018 urtera arte urari buruzko gaiak soilik tratatzen zituen; hau da, efluentaek ez zituen kontuan hartzen, geroago aipatuko den GRI 306ak aipatzen baitzituen, baina urte horretan estandar berri hau argitaratu zen bi gaiak kontuan hartuz. Edateko ura edukitzea oinarrizkoa da gizakien ongizaterako eta NBEak (Nazio Batuetako Erakundea) giza eskubideetako bat bezala ikusten du. NBEak garapen jasangarrirako 2030 agenda onartu zuen garapen jasangarriko helburuen zati bat bezala eta bertan uraren kudeaketa jasangarriarekin lotutako zenbait puntu jasotzen ditu seigarren helburuak: “Uraren eskuragarritasuna, kudeaketa jasangarria eta saneamendua bermatzea gizarte guztiarentzat”. Helburu honen bitartez, arrazoizko prezio batean edateko ura mundu guztian eskuragarri izatea lortzeaz gain, uraren kalitatea hobetzea eta ur faltari aurre egitea ere lortu nahi da. Erakunde batek erauzitako eta kontsumitutako uraren bolumenak eta bere isurketen kalitateak, ekosistemaren funtzionamenduan hainbat erataraz eragin dezake. Ibai, laku edo itsasoetako zuzeneko inpaktuak eskualde bateko bizi kalitatean eragin handia izateaz gain, ondorio sozial eta ekonomikoak ere izan ditzake eskualde horretako komunitatearentzat. Izan ere, sistema hidriko baten erauzketak eragina izan dezake ingurumenean, maila freatikoa murriztean, erabilgarria den ur bolumena murriztean edo beste edozein modutan ekosistemak bere funtzioak egiteko gaitasuna aldatzean. Horregatik, erakunde batek urean dauzkan inpaktuak mugatuta daude eta erakundeek hainbat gomendio ematen zaizkie:

- Ekintza lehenestea estres hidrikoa duten eremuetan; hau da, ur eskaera ur erabilgarria baino handiagoa denean denboraldi batean, edo uraren erabilera murriztu egiten denean kalitate eskasagatik.
- Eskualdeko testuingurua ulertzea, eragin sozialak eta ingurumenekoak kontuan hartuz eta hauen arabera erantzutea.
- Inguruko uraren erabiltzaile guztien beharrak eta lehentasunak asetzen eta errespetatzen saiatzea.
- Metodo eta ekintza kolektiboak uraren beste erabiltzaile batzuen metodoetara eta indarrean dauden politika publikoetara egokitzea.



Horrela, erakundeek, uraren erabilerak baliabide hidrikoetan duen eragina ebaluatu ahal izango dute; hau ingurumenerako, uraren beste erabiltzaileentzako eta erakunde berarentzako mesedegarri izanik. Informazio guzti honekin erakundeek, bereziki uraren erabilera intentsiboa egiten dutenek, ura modu eraginkorrean kudeatzeko aukera izango dute.

GRI 304 Biodibertsitatea: Landare eta animalien biziraupena, dibertsitate genetiko eta ekosistema naturalak bermatzeko funtsezkoa da aniztasun biologikoa babestea. Bestalde, ekosistema naturalek ur eta aire garbiak emateaz gain elikagaien segurtasunari eta giza osasunari laguntzen diote. Gainera, tokiko biziraupen baliabideei ere zuzenean laguntzen die, hau pobrezia murrizteko funtsezkoa izanik eta beraz, baita garapen jasangarrirako. Estandar honetako edukiek, erakunde batean biodibertsitatearekin zerikusia duten inpaktuen eta hauek kudeatzeko moduari buruzko informazioa eman dezakete.

GRI 305 Isurketa: Atmosferara substantziak askatzea bezala definitzen den aire isurketa edo emisioen gaia lantzen du estandar honek. Airera egiten diren emisio guztien artean nabarmentzekoak dira berotegi efektua eragiten duten gasak (BEG), ozono geruza agortzen duten substantziak (SAO), nitrogeno oxidoak (NOX) eta sufre oxidoak (SOX). Aire isurketa mota hauek kliman, ekosisteman, airearen kalitatean, nekazaritzan eta animali zein pertsonen ongizatean bortitz eragiten dute. Honek, kutsatzaile hauen emisioak kontrolatzen saiatzen diren tokiko eta nazioarteko araudiak sortzea ekarri du. Kutsatzaile hauen isurketen murrizketak langileen eta eskualdeko komunitateen osasun baldintzak hobetzen ditu eta kaltetuak izan diren interes taldeekiko erlazioa hobetu dezake.

GRI 306 Hondakinak: Kontuan hartu behar da estandar hauek eguneratuak izan direla azken urte honetan; lehen aurrerago aipatutako GRI 303ko efluenteak ere kontuan hartzen zituelarik. Estandar honetan ur isurketak, hondakinak sortzea, hauen tratamendua eta deuseztatzea; eta produktu kimikoen, erregaien, olioaren eta beste substantzia batzuen isurketa sartzen dira. Uraren isurketen inpaktuak kantidadean, kalitatearen eta helmugaren arabera aldatzen dira. Nutriente edo produktu kimikoak dituzten efluenteen isurketak ez kudeatzeak, uretako bizitza, erabilgarria den uraren hornikuntza eta erakundearen komunitateak uraren beste erabiltzeekin duten harremana okertu dezakete. Isurketa hauen sorkuntzak, tratamenduak eta deuseztatzeak ere kalteak ekar ditzake gizakien osasunean eta ingurumenean. Hau bereziki kezagarria da isurketa azpiegitura edo hauen kudeaketarako araudi faltan dauden herrialdeetan gertatzen bada. Bestalde, produktu kimikoen, erregaien, olioaren eta beste substantzia batzuen isurketek lurra, ura, airea, biodibertsitatea eta giza osasuna kaltetu dezakete. Beraz, estandar honen edukiek, erakunde batek efluente eta isurketen inguruan dituzten inpaktuen eta hauek kudeatzeko moduaren informazioa eman dezakete.

GRI 307 Ingurumen araudien betetzea: Ingurumen arloko lege eta arauen betetzeaz hitz egiten du estandar honek. Horren barruan sartzen dira arau, adierazpen, hitzarmen eta



itun nazionalen gain, internazionalak ere. Estandar honen edukiek erakunde batek legeria edo araudi aplikagarrien betetzeari buruz eta ingurumena babestearekin lotutako beste tresna batzuei buruzko informazioa eman dezakete. Gainera, gai honi buruzko informazio gehiago aurkitu daiteke gero aipatuko dugun GRI 419 estandarrean. Izan ere, informazioa ematen duen erakundeak bi gaiak material gisa identifikatzen baditu, GRI 307ko edukia GRI 419ko edukiekin konbina daitezke; erakundeak bi gaiak kudeatzeko ikuspegi bera erabiltzen badu adibidez, kudeaketa ikuspegiaren azalpen konbinatua eman dezake.

GRI 308 Hornitzaileen ingurumen ebaluazioa: Erakundea, sortzen dituen eraginaren partaide izan daiteke bere jardueren bitartez edo hirugarren batzuekin dituen harremanen ondorioz. Horregatik, erakundeak hornikuntza kateko eragin negatiboak saihesteko eta murrizteko arduraz jokatu duela espero da. Eragin negatibo hauen barnean sartzen dira erakundeak sortzen dituen edo sortzen laguntzen dituen eraginak, eta baita hornitzaile batekin duten harremanetatik bere jardura, produktu edo zerbitzuekiko zuzeneko erlazioa duten eraginak ere. Estandar honen edukiek, erakundeek hornikuntza katean ingurumen eragin negatiboak saihesteko eta murrizteko informazioa eman dezakete. Hornitzaileak ingurumen irizpide batzuen arabera ebaluatu daitezke; hala nola, jada aipatu ditugun 300 serieko beste GRI estandar batzuekin. Gai honi buruzko informazio gehiago aurkitu daiteke gero aipatuko dugun GRI 414 estandarrean. Izan ere, informazioa ematen duen erakundeak bi gaiak material gisa identifikatzen baditu, GRI 308ko edukia GRI 414ko edukiekin konbina ditzake; erakundeak bi gaiak kudeatzeko ikuspegi bera erabiltzen badu adibidez, kudeaketa ikuspegiaren azalpen konbinatua eman dezake.

2. 4. 3. Errendimendu sozialeko adierazleak

Adierazle hauek LA siglekin eta zifra numerikoekin adierazten dira. Honako hauek ebaluatzeko ondorengoak erabiltzen dira: Erakundeko langileekiko lan-harremanak, erakundearen jardueren osasungarritasun- eta segurtasun-maila, konpainia aintzat hartzea aniztasunarekiko prestakuntza edo aukeren eskaintza bezalako kontuengatik, eta bere jardura guztietan jasotzen dituen giza eskubideekiko errespetua (EAE Business School, 2015). GRI estandarren kontestuan, jasangarritasun dimentsio sozialak erakunde batek lan egiten duen gizarte sisteman dituen eraginekin du zerikusia. Enpresako balio katean nolabait parte hartzen dutenen barneko edo kanpoko baldintzak hobetzen ahalegintzen dira (Rodríguez Guerra, 2016). Hurrengoak dira adierazle honen barnean dauden estandarrak (Global reporting, 2020):

GRI 401 Lanpostua: Estandar honen barnean sartzen dira erakundeak lana sortzeari buruz duen ikuspegia; hau da, erakunde batek kontratazioari, erreklutazioari, atxikitzeari eta hauekin erlazioatutako praktikei buruz duen ikuspegia, baita ematen dituzten lan baldintzak ere. Gainera, hornidura kateak dituen lanpostuak eta lan baldintzak ere kontuan hartzen ditu. Lan harreman bat erakunde eta langileen arteko legezko harremana da, bien aldetik eskubide eta betebeharrak dituen. Harreman hori, lanpostuaren edo lanaren arloko legeria edo merkataritzako legeria aplikagarria den



zehazteko bidea izaten da. Estandar honen edukiek erakunde batek lanarekin zerikusia duten eraginen eta hauek kudeatzeko moduari buruzko informazioa eman dezakete. Lan baldintzak ondoren aipatuko diren GRI 402, GRI 403, GRI 404, GRI 405 eta GRI 406 estandarretan ere sakon aztertzen dira.

402 Langile - enpresa harremanak: Estandar honek, izenak ondo adierazten duen bezala, enpresa eta langileen arteko harremanez hitz egiten du. Erakundeek langileekin edo bere ordezkariekin dituzten kontsultak sartzen dira estandar honen barnean, eragiketa adierazgarrien aldaketen komunikazio ikuspegia barne. Erakundeek kontsultak nazioarteko arau eta estandar garrantzitsuekin bat etortzea espero da. Negoziazio kolektiboak, erakunde baten kontsultetan funtzio garrantzitsu bat izan dezake. Negoziazio kolektiboak, lan baldintzak zehazteko edo langileen eta enpresen arteko harremanak hobetzeko lana ematen duten erakundeek eta langile erakundeek (sindikatuak) arteko negoziak dira. Beraz, estandar honen edukiek, erakunde batek langile-enpresa harremanekin erlazioa duten inpaktuez eta hauek kudeatzeko moduaren arabera informazioa eman dezakete. Negoziazio kolektibo honen informazioa sakonago aztertzen da GRI 407 estandarrean.

GRI 403 Osasuna eta segurtasuna lanean: Kontuan hartu behar da estandar hau eguneratua izan zela 2018 urtean eta lan honetan, azken bertsio hau aztertuko da. Lan baldintza osasuntsu eta seguruak giza eskubideen parte bezala ezagutzen dira eta horregatik gobernu arteko hainbat tresna ofizialetan aztertzen dira; izan ere, hau lortzea NBEak garapen jasangarrirako 2030 agendan garapen jasangarriko helburuetako bat bezala ezarri zuen. Lan baldintza osasuntsu eta seguruak edukitzeak kalte fisiko eta mentalen prebentzioa eta langileen osasuna sustatzea ekartzen du. Gainera, erakundeek langileen parte hartzea sustatu behar dute laneko osasun eta seguritate politika jardueretan, kudeaketa sistemetan eta tamainari eta erakundearen jardueretara egokitzen diren programen elaborazioan, erabileran eta ebaluazioan. Arriskuen identifikazioa eta ebaluazioa, langileen prestakuntza eta gorabeheren identifikazioa eta ikerketa ere funtsezkoak dira langileen osasun eta segurtasun kudeaketa sistemak prestatzeko, babesteko, ebaluatzeko eta egoki funtzionatzeko. Kalte hauek aurreikusteaz gain, erakundeek langileen osasuna ere sustatu dezakete osasuna zaintzeko zerbitzuak edo borondatezko programak eskainiz; baina zerbitzu hauek ez dira osasun edo segurtasun programen ordezkak izan behar. Kalteak saihestera eta langileen osasuna sustatzera bideratutako programek langileen pribatutasuna errespetatzen dutela pentsatzen da. Horretaz gain, lanpostuari buruzko erabakiak hartzeko garaian, zerbitzu edo programa hauen parte hartzean ez oinarritzea espero da.

GRI 404 Prestakuntza eta irakaskuntza: Langileen gaitasunen hobekuntzari eta formazioari buruz hitz egiteaz gain, jardueren ebaluazioari buruz eta garapen profesionalaz ere hitz egiten du. Lan jarraia eta erretiroagatik edo kaleratzeengatik ematen diren karrera profesionalen amaiera kudeatzeko transakzioari laguntzen dioten programak ere barneratzen ditu. Estandar honen edukiek, erakundeak prestakuntza eta



irakaskuntzagatik dituen eraginei buruz eta hauek kudeatzeko moduari buruzko informazioa eman dezakete.

GRI 405 Aniztasuna eta aukera berdintasuna: Erakundeek laneko aniztasuna eta berdintasuna sustatzen dutenean, langileentzako zein erakundearentzako onura esanguratsuak ekar ditzakete; hala nola, erakundeek langile posibleen multzo zabalago eta desberdinagoak eskura ditzakete. Onura hauek gizartera ere iristen dira, berdintasun handiagoak gizarte egonkortasuna sustatzen baitu eta garapen ekonomikoari gehiago laguntzen dio. Estandar honen edukiek, erakundeak aniztasunarekin eta aukera berdintasunarekin zerikusia duten eraginen eta hauek kudeatzeko moduari buruzko informazioa eman dezakete. Gainera, jada aipatu den GRI 404 eta ondoren aipatuko den GRI 406 estandarretan honi buruzko informazioa gehiago aurkitu ahal da.

GRI 406 Bereizketa eza: Bereizketa edo diskriminazioa, pertsona bakoitza modu justuan eta merezimendu indibidualean oinarrituta tratatu beharrean, pertsona bakoitza desberdin tratatzea da, karga desberdinak ezarriz edo onurak ukatuz. Jazarpena ere bereizketa honen barnean sartzen da; jazarpen hau desiragarriak ez diren edo arrazoiz desegokitzat jo beharko liratekeen iruzkin edo ekintzak direlarik; beste era batera esanda, pertsona edo talde baten aurkako indarkeria, tratu txarra eta hertsadura jarraitua da. Erakundeak edozein arrazoiengatik pertsona bat baztertzea saihestu nahi da; hala nola, langileak, bezeroak, hornitzaileak edo beste edozein interes talde. Horretarako, nazioarteko konbentzio eta adierazpen batzuk daude, pertsona talde jakin batzuen bereizkeria edo arrazoi bereziak aztertzen dituztenak, arrazakeria eta emakumeen diskriminazioak kontuan hartzen dituztenak adibidez. Estandar honen edukiek beraz, erakunde batek diskriminazio edo bereiztasunarekin erlazioa duten inpaktuez eta hauek kudeatzeko moduari buruzko informazioa eman dezakete.

GRI 407 Elkartzeko askatasuna eta negoziazio kolektiboa: Elkartzeko askatasuna nazioarteko hitzarmenetan eta aitortzen zehaztutako giza eskubidea da. Testuinguru honetan, elkartzeko askatasunak langileek beraien erakunde propioak sortzeko, batzeko eta zuzentzeko eskubidea esan nahi du, beste edozein erakunde edo estatuk aurretiko baimena eman gabe. Langileek lanaren baldintzei buruzko negoziazio kolektiboa izatea ere giza eskubide bezala aitortzen da nazioartean. Negoziazio kolektiboak, langile baten edo batzuen eta sindikatuen arteko negoziazioak dira, lan baldintzak zehazteko eta langileen eta erakundeen arteko harremanak hobetzeko helburuarekin. Estandar honen edukiek, erakundeak elkartzeko askatasunarekin eta negoziazio kolektiboarekin zerikusia duten inpaktuak eta hauek kudeatzeko moduari buruzko informazioa eman dezakete.

GRI 408 Haurren lana: Haurren lana indargabetzea giza eskubideen funtsezko helburuetako bat da, ia nazio guztien legeriaren barnean sartzen dena. Haurren lanak, haurrei beraien haurtzaroa edo duintasuna kentzen die eta beraien garapen fisiko zein mentalerako kaltegarriak dira; gainera beraien heziketan eragina izaten du. Bereziki, gutxieneko adina dutenentzat baimenduta ez dauden lanak hartzen ditu kontuan. Hala ere, kontuan hartu behar da haurren lanean ez dela gazteen edo haurren lanari



erreparatzean, giza eskubideen abusuari baizik. Lan arriskutsuak egiteko gutxieneko adina 18 urtekoa da herrialde guztietan; lan hauek bere jatorriagatik edo aurrera ematen dituen kondizioengatik osasunarentzat, segurtasunarentzat eta haurren moralerako arriskutsuak izan daitezke. Erakundeek beraien jardueretan haurren lana saihesteko ardura izateaz gain, besteekiko dituzten harremanen bidez haurren lanari ez laguntzea espero da; beraien bezero edo hornitzaileen batek hurrekin lan egiten badu adibidez. Estandar honen edukiek, erakunde batek haurren lanarekin erlazioa duten inpaktuak eta hauek kudeatzeko moduari buruzko informazioa eman dezakete.

GRI 409 Derrigorrezko edo bortxazko lana: Lan mota hauek ez jasatea funtsezko giza eskubidea da eta pertsona bati borondate propioz eskaintzen ez zaionean, edozein zigorren mehatxupean eskatzen zaion lan edo zerbitzua bezala definitzen da. Litekeena da, biktimak diskriminazioaren menpe dauden taldeen kide izatea edo lan ezegonkor bat edukitzea, prostituzioan edo zorren menpe dauden etorkinak adibidez. Erakundeek, beraien jardueretan bortxatutako lana saihesteko ardura izateaz gain, besteekiko dituzten harremanen bidez lan mota honi ez laguntzea espero da; beraien bezero edo hornitzaileen batek lan hauek egiten baditu adibidez. Estandar honen edukiek, erakundeen bortxatutako edo derrigorrezko lanaren inpaktuak eta hauek kudeatzeko moduari buruzko informazioa eman dezakete.

GRI 410 Segurtasun arloko praktikak: Segurtasun langileek hirugarrenetik izan ahal duten jokabide pertsonalean eta indar gehiegikeriaren edo giza eskubideen beste arau hausteei buruz hitz egiten du estandar honek. Segurtasun langileak, informazioa ematen duen erakundeko langileak edo segurtasun zerbitzuak ematen dituzten beste erakunde batzuetako langileak izan daitezke. Segurtasun langileak erabiltzeak kalteak sor ditzakete tokiko herrialdeetan eta beste giza eskubideetan. Beraz, giza eskubideen arloan prestakuntza eraginkorra ematea lagungarria da segurtasun langileek indarra modu egokian noiz erabili behar duten dakitela eta giza eskubideak errespetatzen dituztela ziurtatzeko. Estandar honen edukiek, erakundeek segurtasun arloko praktiketan dituzten inpaktuen eta hauek kudeatzeko moduari buruzko informazioa eman dezakete.

GRI 411 Herri indigenen eskubideak: Herri indigena hauen definizio unibertsalik ez da existitzen baina orokorrean hurrengo eratara definitzen da:

- Gizarte, ekonomia eta kultura baldintzek, nazioarteko beste komunitatetik bereizten dituen herrialde independenteetako tribu herriak eta estatus soziala, batik bat, beren ohitura edo lege propioetan oinarritzen dena.
- Konkistan, kolonizazioan edo gaur egungo estatu mugak ezartzean bizi izan ziren herrialde edo eremu geografiko batean jatorria izateagatik indigenak kontsideratzen diren herrialde independenteak, beren estatus juridikoa edozein izanda ere. Herrialde horiek erakunde sozial, ekonomiko, kultural eta politikoak mantentzen dituzte.



Herri indigena askok bidegabekeriak pairatu dituzte urte askoren buruan eta horregatik, talde ahulak kontsideratzen dira; erakundeen jarduerengatik eragin ekonomikoak, ingurumenekoak edo sozialak pairatzeko arrisku esanguratsuak dituztelarik. Herrialde hauek, eskubide kolektiboak izateaz gain, giza eskubide unibertsalak ere badituzte. Estandar honen edukiek beraz, erakundeek herri indigenen eskubideengatik dituzten inpaktuak eta hauek kudeatzeko moduari buruzko informazioa eman dezakete.

GRI 412 Giza eskubideen ebaluazioa: Erakundeek giza eskubideei dagokienez izango duten jarrera arduratsuaren itxaropenak finkatzen dituen nazioarteko estandarrak, NBEaren “enpresa eta giza eskubideei buruzko printzipio nagusiak” dira; hau NBEen giza eskubideen kontseiluak 2011 urtean onartu zuelarik. Erakundeek, giza eskubideetan eragina izan dezakete zuzenean, beren jardueren bidez, edo zeharka, beste batzuekin dituzten elkarrekintzekin. Erakundeak, nazioartean ezagunak diren giza eskubideetan eragin dituzten inpaktuen erantzule dira. Beren jarduerak giza eskubideetan dituzten eragin negatiboak identifikatzeko, aurreikusteko eta gutxitzeko, eragin hauen berrikusketa eta ebaluazioa egiteaz gain, langileak ere gai honetan formatu daitezke. Beraz, estandar honen edukiek, erakundeek giza eskubideen eragin negatiboak identifikatu, aurreikusi eta gutxitzeko dituzten ikuspenari buruzko informazioa eman dezakete. Gainera, beste estandar batzuk ere giza eskubideak barne hartzen dituzte; hala nola, GRI 408, GRI 411.

GRI 413 Tokiko komunitateak: GRI estandarretan, komunitate hauek, modu negatiboan edo positiboan, bertan bizi direlako edo bertan lan egiten dutelako, erakundearen eragin ekonomiko, sozial edo ingurumenekoak jaso dituen pertsonak dira. Izan ere, erakunde baten jarduerak eragin ekonomikoak, sozialak eta ingurumenekoak sor ditzakete tokiko komunitateetan. Horregatik, erakundeak eragin negatibo hauek aurreikusten eta saihesten saiatzea espero da. Komunitate hauen ahultasunak ulertzeko garrantzitsua da interes taldeen identifikazio eta parte hartzerako prozesu egoki eta eraginkorrak ezartzea. Natura heterogeneoa dela eta, erakundeek natura bereizgarri hau eta talde hauek erakundearen jardueren ondorioz jasan ditzaketen ahultasunak kontuan hartuko dituztela espero da. Estandar honen edukiek, erakundeek tokiko komunitateen eraginak eta hauek kudeatzeko moduari buruzko informazioa eman dezakete.

GRI 414 Hornitzaileen ebaluazio soziala: Erakundeak inpaktuen parte hartzaile izan daitezke beren jarduerengatik edo beste erakunde batzuekin dituzten negozio harremanen ondorioz. Erakundeek hornikuntza kateko eragin sozial negatiboak aurreikusteko eta gutxitzeko behar adina ardura izango dutela espero da. Horien barruan sartzen dira erakundeak sortzen dituen edo sortzen laguntzen dituen eraginak eta bere jarduerekin, produktuekin edo zerbitzuekin, zuzeneko zerikusia dutenak, hornitzaileekin duten harremanengatik. Estandar honen edukiek, erakundeek hornikuntza kateko eragin negatiboak aurreikusteko eta gutxitzeko duten ikuspuntuari buruzko informazioa eman dezakete. Hornitzaileak, giza eskubideen, lan baldintzen, osasun baldintzen, soldaten eta beste hainbat irizpide sozialen bidez ebaluatu daitezke.



Irizpide hauetako asko estandar sozial hauetan daude eta honi buruzko informazio gehiago aurretik azaldu den GRI 308 estandarrean lortu ahal izan da.

GRI 415 Politika publikoa: Bertan sartzen da erakundeak presio taldeen bidez eta ekarpen finantzarioen bidez politika publikoan duen parte hartzea. Izan ere, erakunde batek politika publikoan eragin positiboak izan ditzake, gizarteari mesede eginez, baina honek korrupzioa eta sobornoa ere ekar ditzake. Estandar honen edukiek, erakundeek politika publikoaren eraginak eta hauek kudeatzeko moduari buruzko informazioa eman dezakete.

GRI 416 Bezeroen osasuna eta segurtasuna: Estandar honen barnean sartzen dira produktu edo zerbitzu baten bizi zikoan osasuna eta segurtasuna lantzeko erakundeak egiten dituzten ahalegin orokorrak eta bezeroen osasun eta segurtasun legeak betetzea. Estandar honen edukiek, erakunde batean bezeroen osasun eta segurtasunarekin zerikusia duten eraginak eta hauek kudeatzeko moduari buruzko informazioa eman dezakete. Gai honi buruzko informazioa gehiago aurki daiteke ondoren aipatuko den GRI 417 estandarrean.

GRI 417 Marketina eta etiketatzea: Estandar honek produktu eta zerbitzuen informazioa eta etiketatzea lantzen du, marketinaren komunikazioa barne. Honekin, bezeroek, kontsumitzen dituzten produktuen eta zerbitzuen eragin negatibo eta positiboari buruzko informazioa dute, bai eragin ekonomikoetan, bai sozialetan, eta baita ingurumenekoetan ere. Arduratsuak eta bidezkoak diren marketin komunikazioak eta produktuen osaera eta erabilera egokiari buruzko informazioa edukitzea erabilgarriak izan daitezke bezeroek erabakiak hartzeko garaian, hauek nahiko informazio izan dezaten. Estandar honen edukiek, erakunde batek bere produktu eta zerbitzuak etiketatzearekin eta marketin komunikazioarekin zerikusia duten inpaktuak eta inpaktu hauek kudeatzeko moduari buruzko informazioa eman dezakete.

GRI 418 Bezeroen pribatutasuna: Bezeroen datuak galtzea eta hauen pribatutasuna urratzea sartzen dira estandar honetan. Hauek legea ez betetzetik edo bezeroen pribatutasunarekin zerikusia duten borondatezko estandarrak ez betetzeagatik etor daitezke. Estandar honen edukiek, erakunde batek bezeroen pribatutasunarekin zerikusia duten eraginen eta hauek kudeatzeko moduari buruzko informazioa eman dezakete.

GRI 419 Gizarte eta ekonomia betetzea: Estandar honek eremu sozial eta ekonomikoari buruzko arautegi edo legeak betetzea ekartzen du. Hau kontabilitate eta zerga iruzurrarekin, korrupzioarekin, sobornoarekin, lehiarekin, diskriminazioarekin eta beste hainbat gaiekin lotuta dago. Nazioarteko, eskualdeko zein tokiko deklarazio eta hitzarmenak betetzea barne hartzen ditu. Estandar honen edukiek, erakunde batek lege eta arautegi aplikagarriak betetzeari buruzko informazioa eman dezakete. Gai honi buruzko informazio gehiago lor daiteke aurrerago aipatu den GRI 307 estandarrean.



III. KAPITULUA

Kapitulu honetan, aurreko kapituluan aipatutako estandarrek EHUko uda ikastaroak fundazioan duten eragina aztertuko da. Horretarako, lehenengo fundazioa zer den ondo aztertuko da. Ondoren fundazioaren zuzendariak egindako aitoren bat ikusiko da. Azkenik, aipatutako estandar guztien artean fundazio honetan garrantzitsuak direnak aipatzeko, hauen eraginak aztertuz. Lehenik errendimendu ekonomikoekin hasiko gara, ondoren errendimendu soziala aztertzeko eta azkenik ingurumen errendimendua aztertuko da.

1982 urtean Gipuzkoako Foru Aldundiko hezkuntza batzordeak Donostian uda ikastaro batzuk egiteko erabakia hartu zuen, lehen edizio hau izaera esperimentalekoa eta Gipuzkoako Unibertsitateko kanpuseko zentroek antolatua izan zelarik. Beranduago, 1987 urtean, babesle desberdin batzuen diru laguntzarekin jarri ziren martxan ikastaroak. VIII. ediziotik aurrera ikastaro gehienak Miramar Jauregian eman ziren, horrela fundazioari prestigio handiago emanez eta europartzea hasi zen.

1993 urtean, beste erakunde batek eramatea hitzartu zen eta horrela sortu zen EHUko Uda Ikastaroak Fundazioa eta hurrengo urteko martxoaren 18an inskribatu zen Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen erregistroan. Orduetik kalitatezko eskaintza dinamikoa eskaini dute. Horrela, urtean zehar garatzen den unibertsitate jarduerarako ikasketa osagai ezin hobea bihurtuz eta aldatzen ari den gizarte baten inguruko eztabaida eta pentsamendu kritikoaren eremu izanik.

Irakaskuntza eta unibertsitate hedapenerako izaera pribatuko fundazio mistoa da eta irakasketa eta unibertsitate hedapenerako jarduerak antolatzea da bere egiteko nagusia. Beste era batera esanda, nortasun juridiko propioa dauka, gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoa, muga bakarrak legeak ezarritakoak izanik. Bere helburu nagusia, berriz, EHUko Uda Ikastaroak Fundazioak eta honen patronatuak sortutako eta sustatutako beste jarduera batzuen antolaketarako tresna azkar eta eraginkorra izatea da.

Xede nagusia, bere prestakuntza programak eta formulak etengabe berritzeagatik, nazioarteko proiektioagatik, eskaintzen duten balio erantsiagatik, aliantza sarearen hedapen eta sendotasunagatik, herriarekiko konpromisoagatik eta bere antolakuntzaren kalitateagatik uda ikastaro guztien artean erreferentziazkoa izatea da. Gainera, bere xedea zabaltzeko, ikastaroak Euskal Herriko, Espainiako eta Europako erakunde eta instituzioekin lankidetzan aritzeko prest daude. Baina aipatutako xede nagusiaz gain beste hainbat xede ere baditu (Cursos de verano UPV/EHU):

- Ezagutzaren hedapena eta zabalkundea, bereziki EHUn sortutakoarena, Euskaditik eta nazioarteko proiektioarekin.
- Ezagutza profesionalen eguneratzea, maila guztietako irakasleen prestakuntzari arreta berezia eskainiz.
- Unibertsitateen arteko harremana.



- Euskal kultura eta ikasketak nazioarte mailan hedatu eta irakastearen alde egitea.
- Aldatzen ari den gizarte baten inguruko eztabaida eta pentsamendu kritikorako eremu bat eskaintzea, gizarte ongizatea, eta bereziki Euskal Herrikoa, hobetzen lagunduz.

3. 1. ZUZENDARIAREN GUTUNA

Iraunkortasunaren lehen memoria aurkezten dugu, garapen jasangarriaren helburuei egiten dizkiegun ekarpenek unibertsitatearen hedapenerako eta prestakuntzarako ditugun helburu sozialetan sakontzen lagunduko digutelaren uste osoarekin.

Uda ikastaroak iraunkortasunarekin duen konpromezuari dagokionez, esperientzia duela 25 urte hasi zen, garapen jasangarriari buruzko lehen ikastaroen antolaketarekin. Ordutik, edizio guztietan sartu izan da jasangarritasunarekin edo iraunkortasunarekin zerikusia duen ziklo bat, akademiak aurkeztutako proiektuez hornitu dena, baina baita eragile publiko edo pribatu eta enpresez.

Ibilbide horrek, aurten Donostiako iraunkortasun foroaren sorkuntzaren berri emateko aukera eman digu. Bertan parte hartzen du BBVA fundazioak, EAEko lurralde administrazioarekin batera, Eusko Jaurlaritza IHOBEn bitartez, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Saila eta Donostiako Udala. Plataforma honen edukiak, garapen jasangarriko helburuak herritarrei zabaltzera eta hauek sentsibilizatzerara bideratuta daude. Gainera, jasangarritasunaren arloan garrantzitsuak diren eragileak elkartzeko foro bat da. BBVA fundazioak bikaintasun zientifikoa ematen dio foroari, iraunkortasunarekiko elkarrizketak antolatuz.

Iraunkortasunarekin eta kudeaketaren bikaintasunarekin konprometitutako gure ibilbideak, gure prozesuetan eta gure nortasun korporatiboan jasangarritasuna bikaintasun zein gizartearekiko eta gure ingurumenarekiko erantzukizunaren zigilu gisa gehitzeko erronka berria konfiantzarekin hartzea ekarri du.

Adierazpen honekin GRIren eskakizunei eta gure interes taldeei, behar bezalako gardentasunez eta erantzukizunez erantzutea lortu nahi da.

3. 2. ANTOLAKETA

Fundazioaren estatutuen arabera, fundazioaren kide anitzeko organoa Patronatua da. Hau, fundazioaren gobernu, administrazio eta ordezkaritza organo gorenaren izanik. Bere kargura izango ditu fundazioaren gestioa zuzentzeko eta kontrolatzeko eskumen guztiak, betiere, helburuak betetzeko beharrezko direnak, eta fundazioaren ondarea osatzen duten ondasun eta eskubide guztien administrazio lana egingo du, kargu hau doakoa izanik. Patronatu hau da fundazioaren ordezkaria eta horregatik fundazioaren helburuak betetzeko beharrezkoak diren ahalmen guztiak ditu eta bere eginkizunak hurrengoak dira, besteak beste:



- Barne arauak estatutuei jarraituz onartzea eta estatutuak aldatzea, beti ere bigarren hau egin ahal izateko bilerara bertaratuak izan diren botoen bi heren edukitzeaz gain, EHUren Gobernu kontseiluak berretsi behar izanik.
- Fundazioaren ondarea osatzen duten ondasunak eta eskubideak diligenziaz kudeatzea, ondasun eta eskubide horien eraginkortasuna eta erabilgarritasuna zainduta.
- Urteko aurrekontua, ustiapenerako urteko kontuak eta fundazioaren jardueren emaitzek islatzen dituzten gainontzeko agiriak onartzea.
- Ikastaroen zuzendariak, jarduera programa eta jarduera hauen zein fundazioaren urteko memoria onartzea.
- Fundazioaren plantilla eta soldatak onartzea.
- Batzordeak osatzea.
- Oro har, fundazioaren helburuak bete eta lortzeko beharrezko diren gainontzeko eginkizun guztiak.

Patronatu hau berezko kide diren pertsonak eta kide izendatuek osatuko dute. Berezko kide hauetan, EHUKo errektorea dago, Patronatuko presidentea dena eta honek EHUKo 4 ordezkari aukeratuko ditu; hauetaz gain, EHUKo gerentea eta Gobernu Kontseilu talde bakoitzeko kide bat egongo da. Kide izendatuak ordea, gehienez 5 dira eta EHUKo errektoreak, edo aipatu bezala, Patronatuaren presidentek, izen handiko pertsonak izendatuko ditu kargu honetarako.

Kide bakarreko organoei dagokienez, garrantzitsuena Patronatuko presidentek askatasun osoz aukeratutako administratzaile nagusia da. Administratzaile hau izango delarik EHUKo Uda ikastaroak fundazioko langileen buru, eta fundazioko zuzendaritza taldearekin batera lan egingo du, bertan fundazioko zuzendari, zuzendariorde eta idazkari akademikoa daudelarik. Bestalde, fundazioak antolatutako ikastaro bakoitzerako zuzendaria, EHUKo irakasle ikertzaileen artetik hautatutako zuzendariordea eta arduradun tekniko bat daude, azken hau ondoren aipatuko dugun EHUKo uda ikastaroen taldearen barnean irakaslego departamentuan lan egiten duen pertsonetako bat izaten delarik.

Aipatutako EHUKo uda ikastaroen fundazioaren taldea 5 departamentu desberdinetan dago banatuta; ikasleria, irakaslegoa, kontabilitatea, informatika eta komunikazioa. Lan talde honekin harremanetan jartzeko e-mail errazten dute: info@uik.eus eta horretaz gain departamentu konkretu batekin harremanetan jartzeko telefono bat ere badute. Hala nola, ikasleriarentzat 943-21-95-11, irakaslegoarentzat 943-21-97-51 eta komunikazio departamentuarentzat 943-21-90-79.

Hauetaz gain, batzorde antolatzaile bat ere aukeratzen du Patronatuak, bertan fundazioaren zuzendaritza taldeaz gain, enpresa edo organo kolaboratzaileen izenean dagoen pertsona bat ere dagoelarik. Hauen zereginak ondorengoak dira:




- Uda Ikastaroen zuzendaritza akademikoak onartutako arautegi teknikoak berrestea.
- Ikastaroak behar bezala finantzatzen direla ziurtatzea.
- Jardueren memoria onartzea.
- Jardueren jarraipena egitea.

Azkenik, programa edo egitarau batzordea dago, bertako kideak urtero presidenteak izendatuko ditu. Batzorde honetako kideak izen handiko pertsonak izango direla kontuan hartzeaz gain, zientziaren arloen arteko oreka bermatu behar du, eta horren berri emango dio EHUko Gobernu Kontseiluari. Bi eginkizun izango ditu batzorde honek:

- Programa osatzeko ikastaroetarako proposamenak aztertzea.
- Zuzendari akademikoari ekitaldi bakoitzeko programa proposatzea.

Dena den, 4. Irudian fundazioaren antolakuntza nagusiaren zuhaitz antzeko bat ikus daiteke, eta bertan, gainera, departamentu bakoitzean, zein zuzendaritza taldean dauden kideak ikus daitezke.

Irudia 4: EHUko Uda Ikastaroak Fundazioaren lan taldearen antolaketa



Iturria: Ane Gonzalez.



3. 3. INTERES TALDEAK

Bere interes taldeei edo *stakeholderrei* dagokienez, Fundazioak hainbat babesle ditu, horien artean Eusko Jaurlaritz, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Donostiako Udala bezalako erakundeak egonik. Hauek beharrezkoak dira asmo handiko ekimen hau burutu ahal izateko, baina geroago aipatuko dira sakonago, hitzarmen, kolaborazio edo babesleei buruz hitz egitean. Aipatutako hauetaz gain, fundazioak bere ekintzak aurrera eramaten ditu ondoren aipatuko diren interes taldeen itzaropenak betetzen dituela kontuan hartuz:

- EHU: Fundazioaren helburuak betez EHUri prestigio handiago emanez eta bertako ikasle zein irakasleei erraztasunak emanez, deskontuetan adibidez.
- Ikasleak: Beraien ekintzak babestuz eta hauen formakuntza garatzeko laguntza eskainiz.
- Ikastaroetan irakasle bezala dauden adituak; hau da, hizlariak: Ikasleei eta gizarteari zuzendutako zeregin hezitzaileak eta informatzaileak eginez.
- Irabazi asmorik gabeko erakundeak: Fundazioaren ikastaroen babesle izaten; horretarako beharrezko dokumentazioak eta memoriak egonik.
- Langileak: Beraien lana ahalik eta baldintza onenetan egiten dutela ziurtatzen, hauen profesionaltasuna eta familia baldintzak garatzen laguntzen eta komunikazio arin eta jarraia ematen.
- Administrazio publikoa: Lehen aipatutako Eusko Jaurlaritz, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostiako Udala eta beste hainbat erakunde publiko sartzen dira bertan, honetarako jardunbide kontable eta finantzario onak sustatzen dira.
- Hornitzaileak: Konfiantzazko harremanak sortuz, fideltasunerako ahaleginak eginez, ordainketak puntualtasunez eginez eta Patronatuan zerbitzu egokiak kontratatzekeo prozedura bat aprobatur.
- Komunikabideak: Kanpaina solidarioak eta lan batzorde desberdinetan iritzi adituak emanez.
- Sozietatea: Hemen sartzen da gizarte guztia, fundazioa gizartearen etikaren berme izaten saiatzen da.

3. 4. JASANGARRITASUN ADIERAZLEAK (GRI)

Taula 1: Jasangarritasunaren adierazleak (GRI)

ASPEKTU GENERALAK	MEMORIAKO ATALA
ESTRATEGIA ETA ANALISIA	
Arduradun nagusiaren adierazpena	3.1
Arrisku, inpaktu, aukera eta mehatxu nagusienak	3.8
ERAKUNDEAREN PROFILA	



Erakundearen izena	3
Erakundearen zerbitzu edo produktu garrantzitsuenak	3.6.5
Erakundearen egoitza aurkitzen den lekua	3 / 3.9.1
Langile kopurua	3.2
Emaitzen eta ondare garbiaren eboluzioa	3.5.1 / 3.5.2
INTERES TALDEEN PARTE HARTZEA	
Erakundeari lotutako interes taldeen zerrenda	3.3
MEMORIAREN PROFILA	
Memoriaren periodo edo denboraldia	3.3 / 3.4 / 3.7 / 3.10
Erakundearekin kontaktatzeko modua	3.2
GOBERNUA	
Egitura deskribatu	3.2
Erakundearen goi mailako organoak beste organoetako kideak aukeratzeko duen forma edo prozesua	3.2
ETIKA ETA ZUZENTASUAN	
Erakundearen balioak, printzipioak eta xedea	3
ERRENDIMENDU EKONOMIKOA	
Laguntza ekonomikoak, diru laguntzak	3.9
INGURUMEN ERRENDIMENDUA	
Materialak pisuaren eta bolumenaren arabera	3.7.1
Atmosferara askatutako substantzien isurketa	3.7.3
ERRENDIMENDU SOZIALA	
Bezeroen asebetetasuna neurtzeko inkesten emaitzak	3.6.3
Gobernu organoen osaera eta plantillaren banaketa, lanbide kategoriaren eta sexuaren, adinaren eta aniztasunaren beste adierazle batzuen arabera	3.6.6



Arazoak dituzten pertsonen erraztasunak	3.6.5
-----------------------------------------	-------

Iturria: Ane Gonzalez

3. 5. ERRENDIMENDU EKONOMIKOA

3. 5. 1. Emaitzen eboluzioa

2. Taulak emaitzen eboluzioa erakusten duen bitartean, 3. taulan ondare garbiaren eboluzioa ikusi daiteke, horretarako ratioak kalkulatu direlarik. Bigarren taulan, aldaketaren bidez matrikulak edo diru sartzeak %4,72 handitu dela ikus daiteke. Gainera, EBITDAk ere, jardueren diru sartzek baino proportzio handiagoan, gora egin du. Halaber, ustiapen emaitzak zein errentagarritasun ekonomikoak beherakada nabaria izan dute, %65 baino gehiagokoa. Hau, ustiapen sarrerak handitu arren, ustiapen gastuak proportzio handiagoan handitu direlako gertatu da. Gainera, sarrera eta gastu finantzarioak ez daudenez, emaitza finantzarioa ustiapen emaitzaren berdina da bi urteetan. Azkenik, errentagarritasun ekonomikoak beherakada nabaria izan du, honek aktiboan inbertitutako moneta bakoitzeko gutxiago irabaziko duela esan nahi duelarik.

Taula 2: Emaitzen eboluzioa

KONTZEPTUA	2019	2018	ALDAKETA
Jardueren diru sarrerak ¹	1.697.975,95	1.617.822,46	%4,72
EBITDA ²	30.802,07	29.033,98	%5,74
Ustiapen emaitza	285,34	879,84	-%67,57
Emaitza finantzarioa	285,34	879,84	-%67,57
Zerga Garbien mozkinak	285,34	879,84	-%67,57
Errentagarritasun ekonomikoa	%0,094	%0,28	-%66,43

Iturria: Ane Gonzalez

3. 5. 2 Ondare garbiaren eboluzioa

Hirugarren taula honetan, esan bezala, ratioak aztertu dira. Errotazio fondoa positiboa da bi urteetan; horrek, ondare garbiak eta pasibo ez korronteak aktibo ez korrontea finantzatzeaz gain, aktibo korrontea ere finantzatzen duela esan nahi du, ziurtasun finantzarioa emanez. Bestalde, Kaudimen ratioa handitu egin da, 2018an zor euro bakoitzari aurre egiteko zeuzkan ondasun eta eskubideak 1,32 ziren bitartean, 2019an 1,38 izatera pasa zen, pasibo korronteak izan zuen murrizketaren ondorioz. Gainera, 1 baino handiagoa denez bi urteetan, fundazioa teorikoki kaudimenduna da, zorrei aurre

¹ Jardueraren diru sarrerak bezala ikastaro bakoitzeko matrikulak hartzen dira.

² Irabaziak interes, zerga, balio galera eta amortizazioen aurretik.



egiteko nahikoa ondasun eta eskubide baitauzka. Zorpetze ratioak ere informazio bera ematen du eta azkenik, likidezia ratioa dago, epe laburreko zorren moneta unitate bakoitzeko, fundazioak aktibo korrontean dituen moneta unitateak adierazten dituen ratioa.

Taula 3: Ondare garbiaren eboluzioa

KONTZEPTUA	2019	2018	ALDAKETA
Ondare Garbia	83.354,63	83.060,29	%0,35
Errotazio Fondoa (EF)	24.875,6	28.756,66	-%13,5
Zor finantzarioa ³	20.000	151,53	%13.098,7
Kaudimen ratioa (AT / Kanpo ondarea)	1,38	1,32	%4,34
Zorpetze ratioa (Kanpo ondarea / AT)	0,72	0,74	-%2,7
Likidezia ratioa (AK / PK)	1,11	1,12	-%0,89

Iturria: Ane Gonzalez

3. 6. ERRENDIMENDU SOZIALA

3. 6. 1 Jarduerak

Geroago ere, zerbitzu eta jardueraz hitz egitean, gehiago sakonduko da ikastaro mota hauei buruzko informazioa, baina oraingoz, 4. taula honetan azken bi urteetan jarduera edo ziklo mota bakoitzeko zenbat ikastaro egin diren ikusi ahalko da.

Taula 4: Ikastaro mota desberdinen kopurua

	Ikastaroak	Kongresuak	Jarduera irekiak	Online	Guztira
2019	137	28	19	37	221
2018	131	25	16	27	199

Iturria: Ane Gonzalez

3. 6. 2. Parte hartzaileak

4. taulan ikusitako ziklo mota bakoitzeko parte hartzaile kopurua ikus daiteke 5. Taula honetan. Pentsatzekoa den bezala, ziklo mota bakoitzeko zenbatekoak igotzeak, parte hartzaileak ere igotzea ekartzen du, eta hau gertatu da ziklo mota gehienetan. Dena den, aurrera eramandako ikastaro kopuruak gora egin arren, ziklo mota honetako parte hartzaileek beherakada izan dute. Jarduera mota bakoitzeko hizlarien kopuruari

³ Epe laburreko zorrek dira kasu honetan.



dagokienez, 6. taulan ikus daitekeen bezala, bai kongresuetan eta baita jarduera irekietan ere, murriztu egin dira.

Taula 5: Ikastaro mota bakoitzeko ikasle kopurua

	Ikastaroak	Kongresuak	Jarduera irekiak	Online	Guztira
2019	7.428	2.145	1.208	932	11.734
2018	7.846	2.130	1.120	553	11.629

Iturria: Ane Gonzalez

Taula 6: Ikastaro mota bakoitzeko hizlari kopurua

	Ikastaroak	Kongresuak	Jarduera Irekiak	Online	Guztira
2019	1.372	166	34	73	1.678
2018	1.337	214	37	53	1.641

Iturria: Ane Gonzalez

3. 6. 3. Asebetetasun maila

Fundazioaren interes talde batzuen asebetetasun maila erakusten da 7. taula honetan eta 1. grafikoan interes talde hauetako bakoitzeko azken bi urteetako eboluzioa nabariago ikus daiteke. Asebetetasun maila, urtetik urtera, ikus daitekeen bezala, igo egin da bai ikasleriarentzat, bai ikastaroetako zuzendarientzat eta baita irakasleriarentzat edo jardueretan parte hartu duten hizlariarentzat.


Taula 7: Asebetetasun maila

	Ikasleria	Irakasleria (Hizlariak)	Zuzendaritza	Batezbestekoa
2019	8,92	9,52	9,71	9,38
2018	8,52	9,45	9,28	9,08

Iturria: Ane Gonzalez



Grafiko 1: Asebetetasun maila



Iturria: Ane Gonzalez

3. 6. 4. Hizkuntzak

8. taulan euskaraz, ingelesez eta gaztelera egindako ikastaro kopuruak ikusten dira. 3 hizkuntzen kopurua igo da, jarduerak ere igo egin direlako. Baina 2 eta 3 grafikoetan, hizkuntza hauek 2018 eta 2019 urteetan izandako pisua antzeman daiteke, nabarmenena ingeleseko ikastaroen pisua handitzea izan delarik, horretarako gaztelera 2018an zuen pisua murriztu delarik.

Taula 8: Hizkuntzak


	Euskara	Ingelesa	Gaztelera
2019	47	20	142
2018	36	6	130

Iturria: Ane Gonzalez



Grafiko 2: 2019ko hizkuntzak


Hizkuntzak 2019



Iturria: Ane Gonzalez

Grafiko 3: 2018ko hizkuntzak

Hizkuntzak 2018



Iturria: Ane Gonzalez

3. 6. 5. Zerbitzuak eta jarduerak

Fundazioak aurrera eramaten dituen zerbitzu edo jarduerak lehen aipatutako EHU uda fundazioaren taldeak eramaten ditu aurrera, zuzendaritza taldearekin bat eginik. Hala ere, azpikontratazioak ere baditu; hala nola, ikastaro bakoitzean irakasle moduan jarduten duten gaiari buruzko adituak; hau da, hizlariak.

Fundazioak hainbat motatako jarduerak eramaten ditu aurrera. Ikastaro arruntetaz gain, kongresuak ere ematen dituzte edozein lurraldetako adituak bertaratzen direlarik. Horietaz gain, bertaratu gabe online ikastaroak egiteko aukera ere badago, hau kanpotarrentzat erosoagoa izanik. Bestalde, jarduera ireki batzuk ere aurrera eramaten dituzte, hauek guztiz doakoak izanik. Gainera, gai mota asko lantzen dituzte; besteak beste, elikadura, artea, zientzia, teknologia, ekonomia, hezkuntza, psikologia, zuzenbidea, arkitektura, jasangarritasuna...

Gainera, era desberdinetako prezio murrizketak dituzte ikastaro bakoitzeko. Alde batetik, betiko 3 prezioak daude. Murriztapenik gabekoa; murriztapen orokorra duena langabeek, ikasleek, jubilatuek, EHU alumnin izen emanda daudenek edo EHUrekin zerikusia dutenek eta kategoria orokorreko familia ugariok erabili ahal dituztenak eta azkenik salbuespenak daude, kategoria bereziko familia ugariok, %33 edo gehiagoko ezintasuna dutenek, ekintza terrorista bateko biktima direnek eta genero indarkeriaren biktimek erabili ahal dutelarik murriztapen hau.

Hauetaz gain ikastaro bakoitzaren arabera, murriztapen konkretuak daude, ikastaroen babesleek jartzen dituztenak, matrikula normalarekiko diferentzia beraiek ordaintzen dutelarik. Azken hauen adibide gisa, irakasle guztientzat, elkar txarteldunentzat, Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako psikologoek elkargo ofizialeko kideentzat, Osakidetza langileentzat... murriztapenak daude. Bestalde, babesle batzuek batzuetan gonbidapenak ere ematen dituzte; kasu hauetan matrikula doakoa delarik ikaslearentzat; horien artean daude Osakidetza eta Irizarrek emandakoak.



Ikastaro gidan ere hainbat puntu nabarmentzen dira. Alde batetik, maskulinoan ez hitz egiteko esaten du gida honek, eta gainera, hizlarien kopuru nabarmen bat emakumezkoak izatea gomendatzen du.

Bestalde, fundazioak kontuan hartzen ditu Miramar Jauregira ikastaroak egitera datozen ikasle zein hizlarien arazo desberdinak. Mugikortasunari dagokionez, norbaitek mugikortasun arazoak baditu, ikastaroa sarrera eta irteera errazten dituen gelara aldatzen da. Ikusmen arazoei dagokienez, aurreko ilaretan eserleku bat gordetzen zaie. Gainera, pertsona gormutuei, zeinu hizkuntzako itzultzaile bat errazten zaie parte hartu behar duten ikastarorako. Ikasle guztien pribatutasuna zaintzeko, bakoitzak bere gune pribatua du fundazioaren webgunean. Bertara beraien email eta gakoarekin bakarrik sartu daitezke, bertako informazio fundazioagatik banatuko ez delarik; hau da, barne erabilerarako bakarrik erabiliz eta horrela hauen pribatutasuna zaintzen delarik.

Azkenik, aipatzekoa da 2020 urterako prestatzen ari den proiektu berria. Fundazioak ingurugiroari buruzko ikastaro anitz egin dituela kontuan hartuta, BBVAren laguntzarekin, Donostiako lehen iraunkortasun foroa barneratu nahi du hurrengo urterako ekitaldien barnean.

3. 6. 6. Pertsonalari buruzko informazioa

Fundazioaren lan taldea, aurrerago esan bezala 5 departamentu desberdinetan dago banatuta eta 5 hauetako langileak guztira 10 dira, ondoren administratzaile orokorra dagoelarik; beraz, guztira 11 dira EHUko uda ikastaroen fundazioaren lan taldean. 11 langile hauetatik 10 emakumeak dira eta gizonezko bakarra dago. Hauetatik 5ek lanpostu finkoa duten bitartean, gainerako 6ek lanpostu finko etena dute. Lanaldiari dagokionez, astelehenetik ostegunera 8 ordu lan egiten dituzte eta ostiraletan 5 ordu eta erdi. 15 eta 30 minutuko malgutasuna dute bai lanaldiaren sarreran eta baita irteeran ere; eta etxean lan egiteko aukera dute kasu konkretu batzuetan. Horrela, bizitza laborala, pertsonala eta familiarra bateratzeko erraztasunak dituzte. Jai egunei dagokienez, langile finkoek 30 egun dituzte urtean, langile finko etenen jai egunak kontrataren denboraren proportzioaren arabera izango delarik. Gainera, bai lanpostu finkoa dutenek, eta baita lanpostu finko etena dutenak ere, normalean kategoría profesionalean bigarren mailako buru bezala jarduten dute, administratzaile orokorrak ezik.

Langileen prestakuntza eta garapen planak, taldeko pertsona bakoitzarekin adostu behar dira. Fundazioak, prestakuntza hauen kostuak bere aurrekontuaren arabera kalkulatu ditu. Langileek prestakuntzan emango duten denboraren %50a lan ordutegiaren barnean egongo da, beste %50a ordutegi pertsonalean egingo duten bitartean.

Bestalde, informatika, komunikazio, itzulpen edo kontabilitate ikasketak aurrera eramaten ari diren hainbat ikasle hartzen ditu praktikan urte guztian zehar, hauek



ordainsariak izaten dituztelarik. 2019 urteaz zehazki, informatikako 5 ikasle hartu zituen praktketan, komunikazioko 7 eta kontabilitateko bat, 13 hauetatik 7 emakumeak izan zirelarik, eta 6 gizonezkoak.

3. 7. INGURUMEN ERRENDIMENDUA

3. 7. 1. Paperaren eboluzioa


Hau neurtzeko bi urteetan igorritako fakturak hartu dira erreferentzia gisa eta 9. taulan zenbatekoaren diferentzia ikus badaiteke ere, 4. grafikoan erosketa hauen kontsumoaren diferentzia nabarmenago ikus daiteke.

Taula 9: Paperaren eboluzioa

	2019	2018
Paperaren erosketa (g/urteko)	9.760	6.400
Zenbatekoa (€)	518,75	310,5

Iturria: Ane Gonzalez

Grafiko 4: Paperaren eboluzioa



Iturria: Ane Gonzalez

3. 7. 2. Materialak eta hondakinak

Fundazioak erabiltzen dituen materialei buruzko informazio kuantitatiboa ez egon arren, garrantzitsua da lortu ahal izan den informazio kualitatiboa kontuan hartzea. Kasu honetan, aipatzekoa da plastikoaren erabilera ahalik eta neurri handienean ekiditen saiatzen direla. Gainera, sortutako hondakinak birziklatzea puntu garrantzitsu bat da bertan, eta zabor organikoa edo errefusa gutxi sortzen duten arren, papera eta plastikoa birziklatzeko ontzi desberdin handiak dituzte. Azken urtean gainera, esan bezala,



plastikoa ahalik eta gehien murrizteko, beirazko botilak erabiltzen hasi dira, hauek berrerabiliz eta horrela hondakin gutxiago sortuz.

3. 7. 3. Isurketa

Fundazioak atmosferara substantziak askatzen ez dituen arren, bertaratzen direnek arazo hau handitu dezakete. Horregatik, fundazioak, hizlariari garraio publikoaren erabilera sustatzen die; eta autoan etorri behar badute, autoa partekatzeko gomendioa zabaltzen die, auto batean pertsona bat baino gehiago bertaratuz eta horrela auto gutxiago erabiliz.

3. 8. ARRISKU, INPAKTU ETA AUKERA NAGUSIAK (AMIA analisia)

Taula 10: AMIA analisia

INDARGUNEAK	AHULTASUNAK
<ul style="list-style-type: none"> ➤ Erakundearen zerbitzuen eta harremanetarako baliabideen berri ematen duen webgunea du. ➤ Irakasle aditu eta ezagunak. ➤ Urteetan pilatutako esperientzia eta ospe ona. 	<ul style="list-style-type: none"> ➤ Errentagarritasun eskasa. ➤ Interesik gabeko gaiak.
AUKERAK	MEHATXUAK
<ul style="list-style-type: none"> ➤ Digitalizazioa areagotzea. ➤ Laguntza ekonomiko pribatua edo gobernuarena. 	<ul style="list-style-type: none"> ➤ Gobernu nazionalen eta tokikoen politika negatiboak. ➤ Ikastaro berdinen errepikapenak urtero.

Iturria: Ane Gonzalez

3. 9. HITZARMENAK, KOLABORAZIOAK ETA BABESLEAK

Fundazioaren kolaboratzaile nagusiak edo antolakuntza batzordean daudenak BBVA fundazioa, Eusko Jaurlaritzako hezkuntza saila, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Donostiako udala dira.

Bestalde, lehen aipatu bezala, ikastaro batzuek prezio murrizketa bereziak dituzte eta diferentzia hori ordaintzen duten babesleak daude; hala nola, Irizar, Osakidetza, Elkar eta Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiako psikologoek elkargoa. Bestalde, diferentziak horiek ordaintzen ez dituzten ikastaroetako beste laguntzaile batzuk daude; El Diario Vasco eta EITB, adibidez.



Azkenik, beste hainbat kolaboratzaile garrantzitsu ditu, horien artean, Matia Fundazioa, Naturklima eta Radio Euskadi daudelarik beste hainbaten artean. 11. taula honetan ikus daiteke kolaboratzaile horietako batzuk emandako diru laguntzen zenbatekoa eta 5. irudian antolakuntza batzordeko kide diren babesleez gain, beste laguntzaile hauetako batzuen logoak ere ikus daitezke.

Taula 11: 2019 urteko diru laguntzak

ERAKUNDEA	EREMUA	ZENBATEKOA
Antolakuntza batzordearen ekarpenak		546.291,74
Eusko Jaurlaritzza	Autonomiko publikoa	90.000
Gipuzkoako Foru Aldundia	Publiko probintziala	51.500
Donostiako Udala	Publiko lokala	80.000
EHU	Bazkide publikoa	157.600
BBVA Fundazioa	Pribatua	167.191,74
Ziklo edo jardueretako babesleak		110.000
Osakidetza	Autonomiko publikoa	40.000
Prest Gara- GV	Autonomiko publikoa	40.000
Irizar	Pribatua	30.000
Ikastaroetako babesleak		475.430,21
Guztira		1.131.721,95

Iturria: EHUko Uda Ikastaroak Fundazioa.

Irudia 5: Kolaboratzaile batzuen logoak



Iturria: Ane Gonzalez



3. 10. URTEKO KONTUAK

3. 10. 1. Egoera balantzea

12. taulan egoera balantzeko aktiboa ikus daiteke, eta 13. taulan ordea, ondare garbia eta pasiboa. Taula hauetako datuak erabili dira lehenago ikusitako 3. taulan dauden datuak lortzeko; hau da, ondare garbiaren eboluzioa aztertzeko.

Taula 12: Egoera balantzeko aktiboa

AKTIBOA	2019	2018
<u>AKTIBO EZ KORRONTEA</u>	<u>58.470,03</u>	<u>54.303,63</u>
III. Ibilgetu ukiezina	38.497,83	31.379,77
Aplikazio informatikoak	38.497,83	31.379,77
III. Ibilgetu materiala	19.972,20	22.923,86
Instalazio teknikoak eta beste ibilgetu materialak	19.972,20	22.923,86
<u>AKTIBO KORRONTEA</u>	<u>243.990,24</u>	<u>260.447,30</u>
I. Izakinak		
II. Berezko jardueraren erabiltzaileak eta beste zordunak	126.085,62	116.521,32
III. Zordun komertzialak eta kobratzeko beste kontuak	73.892,42	55.864,49
1. Zordunak	73.892,42	55.864,49
2. Pertsonala		
3. Administrazio Publikoarekin beste kreditu batzuk		
VI. Epe laburreko periodokatzeak		
VII. Eskudirua eta beste aktibo likido baliokideak	44.012,20	88.061,49
AKTIBOA GUZTIRA	302.460,27	314.750,93

Iturria: EHUko Uda Ikastaroak Fundazioa

Taula 13: Egoera balantzeko Pasiboa

PASIBOA	2019	2018
<u>ONDARE GARBIA</u>	<u>83.345,63</u>	<u>83.060,29</u>



A) Fondo propioak	70.845,63	70.560,26
I. Fondo soziala	30.050,61	30.050,61
1. Fondo soziala	30.050,61	30.050,61
III. Beste ekitaldietako soberakina	40.509,68	39.629,84
Beste ekitaldietako soberakin negatiboak	40.509,68	39.629,84
IV. Ekitaldiko soberakinak	285,34	879,84
B) Donazio eta legatuak	12.500,00	12.500,00
<u>PASIBO KORRONTEA</u>	<u>219.114,64</u>	<u>231.690,64</u>
II. Epe laburreko hornikuntza		
III. Epe laburreko zorrak	20.000,00	151,53
2. Kreditu erakundeekin zorrak	20.000,00	151,53
V. Hartzekodun komertzialak eta ordaintzeko beste kontuak	199.114,64	205.339,11
1. Hornitzaileak	116.822,39	171.076,54
2. Beste hartzekodunak	48.350,00	
6. Administrazio Publikoaren beste zorrak	33.942,25	34.262,57
VI. Epe laburreko periodokatzeak		26.200,00
PASIBOA GUZTIRA	302.460,27	314.750,93

Iturria: EHUko Uda Ikastaroak Fundazioa

3. 10. 2. Galdu irabazien orria

14. taulan galdu irabazien orria islatzen da; hau da, aktiboak eta pasiboak gehitu edo murrizteagatik ondare garbiak izandako sarrera eta gastuak. Taula honetako datuak erabili dira lehenago ikusitako 2. taulako datuak lortzeko, hau da, emaitzen eboluzioa aztertzeko.

Taula 14: Galdu irabazien orria

GALDU IRABAZIEN ORRIA	2019	2018
1. Jarduera propioagatik erakundearen sarrerak	1.112.545,74	1.027.370,31
a. Matrikulak	566.254,00	479.958,52



b. Antolakuntza batzordearen ekarpenak jarduera propiora	546.291,74	546.291,74
2. Beste sarrerak		1.120,05
4. Hornikuntzak		
7. Ustiapeneko bestelako sarrerak	585.430,21	589.33210
a. Ikastaro eta zikloetako ekarpen kolaboratzaileak	585.430,21	593.975,10
b. Ikastaro eta zikloetako itzulerak		(4.643,00)
8. Pertsonal gastuak	(462.274,59)	(411.704,85)
a. Soldatak, lansariak eta antzekoak	(354.140,75)	(313.419,08)
b. Karga sozialak	(108.133,84)	(98.258,77)
9. Ustiapeneko bestelako gastuak	(1.204.899,29)	(1.177.084,08)
a. Kanpo zerbitzuak	(1.203.406,49)	(1.170.877,22)
b. Tributuak	(1.492,80)	(1.492,80)
c. Eragiketa komertzialetako galerak, narriadurak eta hornidura aldaketak		(4.714,06)
d. Kudeaketa arrunteko bestelako gastuak		
10. Ibilgetuaren amortizazioa	(30.519,73)	(30.850,77)
11. Diru laguntzak, donazioak, eta ekitaldiko emaitzara eramandako kapitaleko ondarea		
12. Ibilgetuaren narriadura eta inorenganatzearen emaitza		62,52
13. Bestelako emaitzak		3.754,61
<u>A.1) JARDUERA SOBERAKINA</u>	<u>285,34</u>	<u>879,84</u>
14. Sarrera finantzarioak		
15. Gastu finantzarioak		
A.2) EMAITZA FINANTZARIOA	285,34	879,84
A.3) ZERGA AURREKO EMAITZA	285,34	879,84
18. Mozkinen gaineko zerga		
EKITALDIKO EMAITZA	285,34	879,84



Iturria: EHUko Uda Ikastaroak Fundazioa

3. 10. 3. Ibilgetu ukiezina eta materiala

15. eta 16. tauletan ibilgetu ukiezinaren eta materialaren mugimenduak ikusi daitezke. Aipatutako lehenengoak balio gordina erakusten duen bitartean, bigarrenak amortizazio metatua erakusten du.

Taula 15: Balio gordina

BALIO GORDINA	Ibilgetu ukiezina	Ibilgetu materiala
Hasierako saldoa 2018	110.270,02	189.451,92
(+) Sarrerak (-) Irteerak		8.649,08
Amaierako saldoa 2018	110.270,02	198.101,00
(+) Sarrerak (-) Irteerak	34.683,13	
Amaierako saldoa 2019	144.953,15	198.101,00

Iturria: EHUko Uda Ikastaroak Fundazioa

Taula 16: Amortizazio metaketa

AMORTIZAZIO METAKETA	Ibilgetu ukiezina	Ibilgetu materiala
Hasierako saldoa 2018	50.564,42	172.652,20
(+) 2018amortizazio zuzkidura (+) Erosketa edo/eta eskualdatzeak (-) Irteerak, bajak, murrizketak eta eskualdatzeak	28.325,83	2.524,94
Amaierako saldoa 2018	78.890,25	175.177,14
(+) 2018amortizazio zuzkidura (+) Erosketa edo/eta eskualdatzeak (-) Irteerak, bajak, murrizketak eta eskualdatzeak	27.565,07	2.951,66
Amaierako saldoa 2019	106.455,32	178.128,80

Iturria: EHUko Uda Ikastaroak Fundazioa



3. 11. MEMORIA LABURTUA

3. 11. 1. Erakundearen jarduera

2007ko martxoaren 16an EHUren Uda Ikastaroak Fundazioko zuzendaritza kontseiluak baiespenez onartu zuen fundazioaren estatutuak aldatzea. Unibertsitateko gobernu kontseiluak aldaketa berretsi zuen egun berean eta gero aldaketa erregistroan inskribatu zen.

2014ko azaroaren 6an EHUren gobernu kontseiluak uda ikastaroen fundazioak antolatutako ikastaroen zuzendaritza akademikoa, zuzendariordetza akademikoa eta idazkaritza akademikoa sortzea erabaki zuen, Gipuzkoako kampuseko errektoreordetzaren menpeko kargu espezifikoko gisa. Fundazioaren patronatuak, 2015eko urriaren 30eko bileran, estatutuen aldaketa onartu zuen, horretarako beharrezkoa den gehiengoaren aldeko botoekin. Aldaketaren helburua testua bai 2014ko azaroaren 6ko erabakiak ekarritako egitura organiko berrira eta baita fundazioen legearen azken aldaketetara ere egokitzea zen. 15 egunetan unibertsitateko gobernu kontseiluak berretsi zuen aldaketa eta gero erregistroan inskribatu zen.

Fundazioaren patronatuak, 2018ko apirilaren 9ko bileran, estatutuen beste aldaketa bat onartu zuen. Aldaketaren helburua testuko erreferentzia normatiboak, Euskal Autonomia Erkidegoko fundazioei buruzko Legeari (9/2016 Legea, ekainaren 2koa), eta sektore publikoko kontratuen legeari (9/2017 Legea, azaroaren 8koa) egokitzea, eta estatutuen testua arau horien arabera moldatzea izan zen. Eraginkortasuna dela eta, urte horretatik aurrera patronatuko presidentek hautatzen dituzten programa batzordeko kideak, eta zuzendari akademikoak onartzen du edizio bakoitzeko programa.

Fundazioaren estatutuetako 9.a) artikulua dio patronatuaren eginkizuna dela «Barne arauak estatutu hauei jarraituz onartzea eta estatutu hauek aldatzea. Baina estatutuak aldatzeko, bertaratuen bi herenen aldeko botoa behar da eta aldaketa EHUren gobernu kontseiluak berretsi behar du».

Azkenik, lehenago ere aipatu bezala, EHUko Uda Ikastaroak Fundazioaren egoitza Donostiako Miramar Jauregian dago. Fundazioak beste gune batzuk ere izan ahalko ditu Euskal Autonomia Erkidegoan zein erkidegotik kanpo, bere gobernu organoek horrela erabakiz gero. Hala ere, batik bat, Euskal Autonomia Erkidegoan beteko dituzten bere jarduerak. Egoitza edo bestelako guneak aldatzeko erabakia patronatuak onartu behar du eta, horrela eginez gero, fundazioen erregistroari jakinarazi behar zaio.

3. 11. 2. Ondarea eta ekonomia araubidea

EHUko Uda Ikastaroak Fundazioaren ondarea balio ekonomikoa izan dezaketen ondasun eta eskubide guztiek osatzen dute. Ondasun eta errentak fundazioari atxikita eta fundazioaren helburuetara lotuta egongo dira, zuzenean eta berehala, pertsona edo



agintaritza tartean jarri gabe. Hala ere, salbuespen dira dohaintza, jaraunspen edo legatu bidez hartutako ondasunen testamentu xedapenak.

Fundazioaren ondarea zaindu eta babesteko, honako irizpideak beteko dira:

- Fundazioaren ondarea osatzen duten ondasun eta eskubideak fundazioaren izenean egon behar dira, inbentarioan jasota ageri behar dira, eta, egoki denean, kasuan kasuko erregistroan izena emanda.
- Ondasun higiezinak eta eskubide errealak Jabetza Erregistroan jaso behar dira, fundazioaren izenean. Erregistratu beharreko gainontzeko ondasunak, kasuan kasuko erregistroan jasoko dira.
- Fundazioaren titulartasuna daukaten balioak eta eskudirua, jabetza tituluak, gordailu ordezkagiriak eta jabari, jabetza, erabilera, gozamen edo bestelako eskubideak fundazioaren izenean gordeko dira, patronatuak zehaztutako erakundeetan.
- Gainontzeko ondasun higigarriak patronatuak zehaztutako eran zainduko dira.

Ondasun eta eskubide horiek guztiak inbentario liburuan jasoko dira, zehatz-mehatz adierazita, horiek identifikatzeko eta deskribatzeko beharrezko diren gorabehera guztiekin batera. Horren arduraduna administratzaile nagusia izango da, baita liburua ikuskatzearen arduraduna ere.

Ekonomia araubideari dagokionez; urtero, hurrengo ekitaldirako aurrekontua egingo da, diru sarrera eta gastu guztiak zehaztuta daudelarik. Horrela, patronatuak aurrekontu hau onartu ahalko du, eta behin onartuta, EHUKo gobernu kontseiluari horren berri emango zaio. Bestalde, ekitaldian zehar aldaketak egin ahal izango dira; beti ere premiak asetzeko eta egin beharrekoak behar bezala egiteko egoki direnak. Aldaketak eginez gero, patronatuari hurrengo ohiko bileran horren berri eman beharko zaio.

Egoera balantzea, emaitzen kontuak eta inbentarioa, fundazioaren egoera ekonomikoaren, finantza egoeraren eta ondare egoeraren adierazle izango dira. Patronatuari dagokio hauek onartzea eta hemen ere, onartu eta gero, horren berri emango zaio EHUKo gobernu kontseiluari, dokumentazio guztia bidaliz.

3. 12. GRI AURKIBIDEA

Taula 17: GRI edukiaren aurkibidea

Estandarra	Orria
ERRENDIMENDU EKONOMIKOA	
Jarduera ekonomikoa	54
Merkatuan presentzia	Informazio eza
Zeharkako eragin ekonomikoak	Informazio eza
Kontratazio praktikak	Informazio eza
Korruptzioaren aurka	Informazio eza



Lehia desleiala	Informazio eza
Zerga sistema	Informazio eza
INGURUMEN ERRENDIMENDUA	
Materialak	53
Energia	Informazio eza
Ura eta efluentea	Informazio eza
Biodibertsitatea	Informazio eza
Isurketa	54
Hondakinak	53
Ingurumen araudia betetzea	Informazio eza
Hornitzaileen ingurumen ebaluazioa	Informazio eza
ERRENDIMENDU SOZIALA	
Lanpostua	52
Langile – enpresa harremanak	Informazio eza
Osasuna eta segurtasuna lanean	Informazio eza
Prestakuntza eta irakaskuntza	52
Aniztasuna eta aukera berdintasuna	51
Bereizketa eza	51
Elkartzeko askatasuna eta negoziazio kolektiboa	Informazio eza
Haurren lana	Informazio eza
Derrigorrezko edo bortxazko lana	Informazio eza
Segurtasun arloko praktikak	Informazio eza
Herri indigenen eskubideak	Informazio eza
Giza eskubideen ebaluazioa	Informazio eza
Tokiko komunitateak	Informazio eza
Hornitzaileen ebaluazio soziala	Informazio eza
Politika publikoa	Informazio eza
Bezeroen osasuna eta segurtasuna	52
Marketina eta etiketatzea	Informazio eza
Bezeroen pribatutasuna	52
Gizarte eta ekonomia betetzea	Informazio eza

Iturria: Ane Gonzalez

ONDORIOAK

Lanaren lehen zatian, erantzukizun sozial korporatiboaren testuingurua aztertzen da. ESKaren hainbat definizio ikusi dira, definizio guztien artean bi konklusio atera ahal izan direlarik. Lehenengoa, bezeroak, akziodunak, langileak, ingurumena eta gizartea bere osotasunean kontuan hartzen dituela, hau da, enpresa edo erakundeak hauengan zein beste interes talde batzuegan izaten dituzten edo izan ahal dituzten inpaktuak kudeatzen dituela. Bigarrena, borondatezkoa dela; horregatik eremu oso zabala da erantzukizun soziala, erakunde bakoitzak erantzukizun hau aurrera nola eraman erabakitzen duelako.



Bigarrenik, *stakeholder* edo interes taldeak ESKaren zati garrantzitsuenetako bat direla nabarmendu da. Horregatik, azken urteetan interes taldeekiko kezka handitu da, gizartearen presioagatik, batik bat. Horrela eredu paternalistaren eta akzio ereduaren arteko desberdintasunak aztertu dira. Gaur egun, eredu paternalista hau hobeto ikusita egonik, interes taldeei garrantzi handiagoa ematen dietelako.

Hirugarrenik, erantzukizun sozialarekin, enpresek ospe ona lortzen dute; gizartearen hobetzearen helburua erakusten baitute; hau ospe onarekin premiatzen duelarik gizarteak. Hala ere, horren ondorioz, enpresa batzuek, erantzukizuna bilatu beharrean ospe hau lortzearen bakarrik ematen dute erantzukizun mota hau aurrera. Horregatik, jasangarritasun txostenak sortu ziren, enpresak zenbateko konpromezua duten frogatzea helburu dutenak. Jasangarritasun txosten hauen erreferente nagusienak Global Reporting Initiative (GRI) txostenak dira. Azken urteetan aldaketa nabariak izan ditu, bertsio desberdinak plazaratu direlarik. Azkenik, GRI estandarren bertsioa plazaratu zen 2016 urtean, aurreko G4 bertsioan oinarritzen den bertsio berrituagoa.

GRI estandar asko daudela ikusi da hiru errendimendu desberdinetan banatuta. Lehenik, errendimendu ekonomikoa dago, 7 estandar dituen; bigarren, ingurumen errendimendua, 8 estandarrekin eta hirugarren, errendimendu soziala, beste 19 estandarrekin.

Azkenik gure lanean, aplikazio praktikoa bat garatzeko helburua izan dugu, konkretuki EHUko Uda Ikastaroen fundazioan jasangarritasun txosten bat garatzea GRI gidan oinarrituta. Honen ildora, lortu dugun lehen ondorioa honakoa da: GRIk proposatzen dituen 34 estandar guztiak ezin izan dira aztertu, fundazioak ez baitzuen denak aztertzeko nahikoa informazio. Dena den, aztertu ahal izan diren estandarretan, nabaria izan da alderdi gehienetan fundazioak jasangarritasunarekin duen konpromezua.

Errendimendu ekonomikoari buruz lortu ahal izan da informazio gutxien. Fundazioak hainbat babesle desberdinetatik diru laguntzak jasotzen ditu. Hala ere, ez dago lehia desleialari edo korrupzioari buruzko informaziorik, hauek azterzea ere interesgarriak izango ziren arren.

Ingurumen errendimenduari buruz lortu ahal izan den informazioa ere eskasa izan da, eta informazio kuantitatiboaren faltan, informazio kualitatiboa lortu ahal izan da batik bat. Errendimendu hau hobeto aztertzeko interesgarria izango litzateke informazio kuantitatiboa lortzea, horrela urteetan zehar izandako eboluzioa hobeto ikusteko; adibidez, azken urteetako energia kontsumoaren zenbatekoa.

Errendimendu sozialari dagokionez ordea, nabaria izan da honek fundazioan duen garrantzi handia. Hemen lortu izan ahal da informazio gehiena. Azken urtean, ikasle zein hizlarien kopurua igo da. Beraz, fundazioaren lanak ondo baloratuak izan direla esan daiteke, ezagunagoa eginik eta jende gehiago bertaratu delarik. Gainera, bi interes talde hauen asebetetasun mailak ere gorakada izan dute, horrela bertako langileen



konpromezu eta esfortzuek merezi izan dutelarik. Gainera lankideen artean aniztasuna nabaria da, desberdintasuna ere alde batera uzten delarik; horrela, edozein adineko (bekadunak, langileak) pertsonak ikusi daitezke bertan lanean urte osoan zehar. Ikastaroen ikasleen artean ere aniztasun asko ikus daiteke, diskriminazio edo bereizketarik gabe; izan ere, gizartean era batera edo bestera indar gutxiago duten kolektiboek erraztasunak ematen dizkiete bertaratzeko; hala nola, ezgaitasunak dituztenei edo indarkeria motaren bat bizi izan dutenei.

Esan bezala, fundazioak ez du estandar guztiak aztertu ahal izateko informazio nahikoa; baina informazio hau ez edukitzearen arrazoia ez da jasangarritasunagatik duten konpromezu eza. Beraz, estandar batzuetan informazioa lortzea ezinezkoa den arren, lehen ere esan bezala, interesgarria litzateke beste estandar batzuetan gehiago sakontzea informazio gehiago lortu ahal izateko eta GRI jasangarritasun txostena gehiago osatzeko.

Dena den, kontuan hartzekoak dira 2020 urte berri honetan, Covid-19ak ekarri dituen aldaketa sozialak, ekonomikoak eta ingurumenekoak. Hauek, erronka gogorrek ekarri dituzte fundaziora, lehendik ere zituzten erronkei batzen zaizkienak. Baina erronka hauek aurrera eramateak fundazioaren nortasuna eta indarra handitzea ekarri du, aukera ekonomiko eta sozial berriak ezagutzuz; hala nola, online zuzenean ikastaroak.

BIBLIOGRAFIA

1. ARTIKULUAK

AECA (2004). *Marco conceptual de la responsabilidad social corporativa*, ponentes Jose Luis Lizcano Álvarez y Jose Mariano Moneva Abadía, Comisión de Responsabilidad Social Corporativa, Asociación Española de Contabilidad y Administración de Empresas (AECA), Madrid.

Bowen H.R. (1953). *Social responsibilities of the businessman*, Harper and Row, Nueva York

Correa Mejía, D. A., & Hernández Serna, D. P. (2017). Informes de sostenibilidad y su impacto en la creación de valor financiero de las empresas. Eskuragarri: http://bibliotecadigital.udea.edu.co/bitstream/10495/10766/1/CorreaDiego_2018_InformesSostenibilidadImpacto.pdf

Deakin, S. y Hobbs, R. (2007). False dawn por CSR? Shifts in regulatory policy and the response of the corporate and financial sectors in Britain, *Corporate Governance: An International Review*, vol. 15, p. 68-76

Eells, R. (1960). *The meaning of modern business: an introduction to the philosophy of large corporate enterprise*, Columbia University Press, Nueva York



Fernández, J. (2008). Modelo stakeholder y responsabilidad social: el gobierno corporativo global. *M@n@gement*, 11(2), 81-111.

Geba, N. B., Catani, M. L., Bifaretti, M. C., Sebastián, M. P., Giusio, M. G., Roellig, I., & Terrasanta, S.B. (2016). La Doctrina Contable y los marcos conceptuales para la normativa contable: aportes para un consenso generalizado de conceptos y definiciones clave necesarios para las Memorias de Sostenibilidad GRI G4. *Proyecciones*, 11.

Kaysen, C. (1957). *The social significance of the modern corporation*, American Economic Review, vol. 47, p. 311-319

Kennedy, A.A. (2000). *The end of shareholder value*, Orion Business Books, Londres

Lozano, M. R., Valencia, P. T., & Lambert, C. B. (2008). El principio de transparencia en el ámbito de la Responsabilidad Social de la Empresa: un análisis aplicado al caso de la banca española. *Revista de Fomento Social*, (251).

Martínez, C. V., & de Diego, A. M. (2008). La relación pública entre empresas y ONG. Análisis de su impacto en la elaboración de políticas públicas en el marco de la RSE. *CIRIEC-España, Revista de Economía Pública, Social y Cooperativa*, (63), 165-189.

Mitchell, L.E. (2007). *The board as a path toward corporate social responsibility*, en McBarnet, D.; Voiculescu, A. y Campbell, T. (eds.): *The new corporate accountability: corporate social responsibility and the law*, Cambridge University Press, Cambridge, p. 279-306

Moneva, J. M. (2005). Información sobre responsabilidad social corporativa: Situación y tendencias. *RAE: Revista Asturiana de Economía*, (34), 43-67.

Moneva, J. eta Paez, J., 2020. Verificación de informes sobre Responsabilidad Social Corporativa [online] Aeca.es. Eskuragarri: <http://www.aeca.es/old/comisiones/rsc/JornadaAECA-%2030junio2010-moneva.pdf>

Novak, M. (1981). *Toward a theology of the corporation*, American Enterprise Institute Press, Washington (D.C.).

Nieto, C. D. N., & Peñalver, A. J. B. (2009). Las empresas de economía social y su relación con las instituciones: colaboración con la universidad en asuntos medioambientales. *CIRIEC-España, Revista de Economía Pública, Social y Cooperativa*, (65), 85-111.

Perrow, C. (1997). Organizing for environmental destruction, *Organization and Environment*, vol. 10, p. 66-72.



Ponce, H. G., & Labat, B. N. 2020 La revelación de información medioambiental: los primeros pasos en la información suministrada en los ejercicios 1996-1999. *Consejo Editorial*.

Rincón, C. A. G. (2013). La economía social desde tres perspectivas: tercer sector, organizaciones no gubernamentales y entidades sin ánimo de lucro. *Revista Tendencias & Retos*, 18(1), 143-158.

Rivera Virgüez, J. C. 2011 Análisis del impacto medioambiental de El Cerrejón a partir de sus informes GRI: 2005-2009.

Rodríguez Guerra, L. C., & Ríos-Osorio, L. A. (2016). Evaluación de sostenibilidad con metodología GRI. *Dimensión empresarial*, 14(2), 73-89.

Rodríguez Fernandez, J.M (2007). *Responsabilidad social y corporativa análisis económico: práctica frente a la teoría*. *Ekonomiaz: Revista vasca de economía* (65), p. 12-49.

Sajardo Moreno, A., & Chaves Sajardo, R. J. (2017). Responsabilidad Social en las empresas de Economía Social: un análisis comparativo del tejido productivo de la Comunidad Valenciana. *REVESCO. Revista de Estudios Cooperativos*, (125), 213-242.

Stiglitz, J. (2004). *Keynote address on business for social responsibility and development*, en Business for Social Responsibility 2004 Annual Conference, Columbia University, Nueva York, 9-12 de noviembre.

Suchman, M.C. (1995). *Managing legitimacy: strategic and institutional approaches*, *Academy of Management Journal*, vol. 20, p. 571-610.

Tula, S. (2001). Responsabilidad social y naturaleza de las empresas. *Extraído el*, 8. Eskuragarri: <http://www.angelfire.com/journal2/comunicarse/tula.pdf>

2. WEB ORRIAK

Ayuda en Acción (2018). ¿Qué es la Economía Social y en qué consiste? Eskuragarri: <https://ayudaenaccion.org/ong/blog/empresas/que-es-economia-social/>

Corresponsables.com España. 2016. *GRI Lanza Los Nuevos Estándares Que Sustituyen A La Guía De Reporting G4*. [online] Eskuragarri: <https://www.corresponsables.com/actualidad/comunicación-responsable/gri-nuevos-estándares-que-sustituyen-guía-de-reporting-g4>

Cronista, E., 2020. *La RSE En Una Visión Amplia De Los Negocios | El Cronista*. [online] El Cronista. Eskuragarri: <https://www.cronista.com/opinion/La-RSE-en-una-vision-amplia-de-los-negocios-20111207-0025.html>



Cursos de Verano UPV/EHU. *UPV/Ehuko Uda Ikastaroak Fundazioa*. [online]

Eskuragarri: <https://www.uik.eus/eu/gutaz/uda-ikastaroak-fundazioa>

Delgado, R. *La RSE: Un Proceso Sistemático Y De Mejora Continua*. [online] Responsabilidad Social y Sustentabilidad. Eskuragarri:

<https://www.responsabilidadsocial.net/la-rse-un-proceso-sistemico-y-de-mejora-continua/>

EAE Business School. 2015. *Indicadores GRI: Indicadores De Responsabilidad Social Corporativa*. [online] Eskuragarri:

<https://retos-operaciones-logistica.eae.es/indicadores-gri-indicadores-de-responsabilidad-social-corporativa/>

Ecoemprende. 2020. *Más Allá De La Responsabilidad Social Corporativa - Ecoemprende*. [online] Eskuragarri:

<https://www.ecoemprende.com/una-verdadera-responsabilidad-social/>

Gizarte Korporatiboaren behatokia. 2020. *Qué Es RSC - Observatorio De Responsabilidad Social Corporativa*. [online] Eskuragarri:

<https://observatoriorsc.org/la-rsc-que-es/>

Globalreporting.org. *About GRI*. [online]. Eskuragarri:

<https://www.globalreporting.org/Information/about-gri/Pages/default.aspx>

Mas-business.com. 2013 [online] Eskuragarri: <http://www.mas-business.com/docs/Spanish-G4.pdf>

Medium. 2018. *MATERIALIDAD En El Ámbito De La RSE*. [online] Eskuragarri:

<https://medium.com/blog-sostenibilidad-bac-credomatic/materialidad-en-el-%C3%A1mbito-de-la-rse-bc41535e4986>

Melo, J., 2015. *La Importancia De La Mejora Continua En El Enfoque De RSE – La Buena Empresa*. [online] Labuenaempresa.com. Eskuragarri:

<https://labuenaempresa.com/2015/04/20/mejora-continua-rse/>

Observatorio del Inversor. 2013. *¿En Qué Consiste La Responsabilidad Social Corporativa O RSC? - Observatorio Del Inversor*. [online]. Eskuragarri:

<https://www.andbank.es/observatoriodelinversor/en-que-consiste-la-responsabilidad-social-corporativa-o-rsc/>

Peiro, A., 2016. *Grupos De Interés – Stakeholders - Definición, Qué Es Y Concepto / Economipedia*. [online] Economipedia. Eskuragarri:

<https://economipedia.com/definiciones/grupos-de-interes.html>



RSC, C. y metodologías, L., 2020. *La Importancia De Medir La RSC: Principales Metodologías*. Eskuragarri:

<https://www.fundacioneres.org/Paginas/Campus/BuenasPracticas.aspx?IDe=72>

Scade, J., 2013. *La Nueva Guía G4 Del GRI Presenta Grandes Novedades Para Las Memorias De Sostenibilidad | Compromiso Empresarial*. [online] Eskuragarri:

<https://www.compromisoempresarial.com/rsc/2013/05/la-nueva-guia-g4-del-gri-se-presenta-con-grandes-novedades-para-las-memorias-de-sostenibilidad/>

Vives, A. Agora: Inteligencia Colectiva para la Sostenibilidad. 2015. *Materialidad: 12 Principios Básicos Y Una Metodología Para La Estrategia De RSE (I)*. [online]. Eskuragarri:

<https://www.agorarsc.org/materialidad-12-principios-basicos-y-una-metodologia-para-la-estrategia-de-rse-i/>

VIVES, A. 2013. *Matriz De Materialidad: Más Allá Del Esquema Tradicional*. [online] Cumpetere.blogspot.com. Eskuragarri:

<http://cumpetere.blogspot.com/2013/11/matriz-de-materialidad-mas-alla-del.html>

3. LEGEAK

Europar batzordea (2011). Comunicación de la comisión al parlamento europeo, al consejo, al comité económico y social europeo y al comité de las regiones. *Incremento del impacto de la política de desarrollo de la UE: Programa para el Cambio*, del, 13.

Pacto global. 2013. [online] Eskuragarri: [https://pactoglobal.cl/wp-content/uploads/2019/05/Making the Connection G4 ESP.pdf](https://pactoglobal.cl/wp-content/uploads/2019/05/Making%20the%20Connection%20G4%20ESP.pdf)